

Haur hezkuntzarako liburutegi proposamena: Ehun liburu mende baterako.

Izaro Urtubia Garate

Gema Lasarte Leonet

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika (EHU/UPV)

Hitz gakoak: Haur Hezkuntza, Haur literatura, irakurketa, liburutegiak, kalitatezko literatura

Laburpenak

Gaur egun literaturari gero eta garrantzia gehiago ematen zaio, baina oraindik ere irakurketa ez dago gure gizartean guztiz txertatuta. Egoera hori aldatu nahian eta irakur zaletasuna pizteko txikitatik hastea nahitaezkoa da. Ideia hori, hain zuzen ere, abiapuntutzat harturik eta bertan oinarriturik burutu da proposamen edota inbentario hau. Honako hau, guraso zein irakasleentzako gida moduko bat izango da, irakurketaren garrantzia azpimarratuz eta batez ere, literatura munduan murgiltzeko beharrezkoak diren irizpideak kontuan hartuz eta horiei buruzko hausnarketa bat burutuz. Hortik abiatuta 100 liburu gomendatu dira adina, literatur kalitatea eta funtzio aniztasuna kontuan izan da, Haur Hezkuntzako Liburutegia martxan jartzeko.

Nowadays literature is becoming more important, however reading is still not completely integrated in our society. This situation would be changed if we promote reading since our childhood. Basing on this idea we have made this inventory, which can be used like a guide for parents and teachers. In addition, this dissertation shows the importance of literature and especially the guidelines that must be taken into account to encourage reading.

1. Sarrera

Egun existitzen diren ikerketa anitzek baieztatu dute, populazioaren zati handi batentzat irakurketak ez duela bere eguneroko zereginetan parte hartzen. Askok irakurketa lanarekin edo ikasketekin erlazionatzen dute eta ehuneko gutxi batzuek bakarrik lotzen dute irakurketa plazerarekin. Honek argi eta garbi erakusten digu, irakurketa prozesuan murgiltzerako orduan zerbaitek huts egiten duela. Egoera hori aldatzeko, hasteko garrantzitsua izango da haurrak irakurketa munduan txiki-txikitatik murgiltzea eta ibilbide horretan zeresan handia edukiko du eskolak. Eskolaren aldetik, ahalegin guztia egin behar da haurra literaturan barneratzeko eta baita horretara motibatuz ere. Ildo beretik, irakaslearen jarrera ere kontuan hartzekoa da. Dena den, aurrerago ikusiko dugun moduan dena ez dago eskolaren menpe, haurrak etxean jasotzen duen irakurketarekiko ikuspegia ere oso garrantzitsua izango da, horregatik euren parte hartze aktiboa lortzea ezinbestekoa da.

Gauzak horrela, proposamen didaktiko honekin irakurketak duen garrantzia azpimarratu nahi da, honen nagusitasunaz jabetuta errazagoa izango baita gainontzekoei sentimendu hori transmititzea. Horrez gain, irakasle zein gurasoentzako gida moduko bat izango da, irakurketa era egoki batean aurrera eramateko egoerarik idilikoena zein den azalduz, hau da, behar den giro, jarrera, espazio, materialak ... zeintzuk diren aipatuz eta horiei buruzko hausnarketa bat burutuz.

Bestalde, lan hau ikastetxe batean egongo da zentratuta, Haur Hezkuntzako ikastetxe batean, zehatzagoak izateko. Bertan irakurketari emango zaion presentzia aberastu nahian eta horretarako behar dituzten baliabideak aztertuz eta proposatuz. Horregatik, burutu da honako inbentarioa, hau da, ikastetxe horren errealitatea aldatze nahiez. Aldaketa baten esperoan, proposamen aberats eta baliagarri bat eskainiko da. Hartaz, lehenik, marko teorikoa eraiki da helburua argiak bide, eta ondoren, metodologia buruan, kalitatezko liburuen hautua egiteko fitxa osatu da. Honen azkenengo xedea, "ehun liburu mende baterako" izena duen zerrenda bat izango da, kalitatezko ehun liburu osatuta dagoena. Amaitzeko, hasieran planteatutako helburuak bete diren edo ez ikusi ahal izango da ondorioetan.

2. Marko teorikoa

Artikulu honen funtsa haurrak literatura munduan barneratzeko irizpide batzuk ematea da edo hori lortu nahi da behintzat, haurrentzako irakurtzea ez dadila esanahirik gabeko jarduera huts bat izan, haratago joan dadila, plazerrarekin erlaziona dezatela da helburua. Juan Matak baieztatzen duen moduan "la noción del placer está ya indefectiblemente unida a la lectura" (2008:35). Helburu hori lortzeko bidea izango da, hain zuzen ere, marko teoriko honen erdigunea. Hala ere, testuingurua hobeto ulertzeko, lehenik, badaude hainbat kontzeptu argitzea beharrezkoak direnak. Horien artean daude, irakurketa eta haur literatura kontzeptuak. Ondoren, irakurketak haurrengan ekartzen dituen onura anitzez hitz egingo da. Azkenik, liburutegia eta eskolaren arteko erlazioa bermatzeko irizpide ezberdinak aipatuko dira, eragile ezberdinez osatua egongo dena.

2.1. Irakurketa kontzeptua

Marko teoriko honetan murgilduz, hasteko ezinbestekoa da irakurketa kontzeptuari buruzko argibide batzuk ematea, Artikulu honetan behin eta berriro egingo baitzaio erreferentzia. Jakina da hitz honen esanahia zein den, hala ere, beste definizio eta ikuspegi batzuk azaltzea ez dago soberan. Isabel Solé-ren (1992) ustez, idatzizko testua ulertzeko prozesua da, irakurtzea. Definizio honetan, nahitaezkoa da ulermen kontzeptua azpimarratzea. Izan ere, gaur egun mundu guztiak daki irakurtzeak ulermena eskatzen duela, baina hau ez da beti horrela izan. Garai batean, irakurtzea jarduera pasibo eta deskodetze prozesu soiltzat hartzen zen, goranzko prozedura gisa, alegia. Honako hau, Bosch de Pais, Coronel eta Leiva de Mendizabalek idatzitako artikuluan gehiago zehazten da: "Hace algunos años la lectura era concebida como un procedimiento "ascendente", es decir, el lector debía identificar palabras, frases, cláusulas y oraciones para luego descodificarlas y extraerles sentido" (2002:4). Prozesu horretan, besteak beste, oinarritzen zen antzinako ikasketa prozesua (Yore, Craig eta Maquire, 1998) eta oraindik ere, gela batzuetan irakurketa lantzeko, deskodetzearekin erlacionatutako jarduerak bakarrik eramaten dira aurrera. Gauzak horrela, argi geratu behar dena da, gaur egun irakurketa kontzeptua aldatu egin dela eta irakurketarekin erlacionatutako edozein ariketa planteatzen denean, funtsezko helburua haurrak irakurtzen dutena ulertzea izango dela (Fons, 2004).

Irakurtzea idatzizko testua ulertzeko prozesua dela esaten denean, Solék (1992) irakurketak zenbait irizpide eskatzen dituela aitortzen du. Psikologia irakasten duen irakasle honentzat, testua ulertzera iristeko, irakurketa prozesua aktiboa izan behar da, hau da, irakurleak testuaren bitartez esanahia eraiki behar du, bere aurrezagutzak eta irakurtzerakoan dituen helburuak kontuan izanda. Are gehiago, irakurtzea helburu bat lortzea da, beti irakurtzen baitugu zerbait lortzeko. Helburu horiek, hain zuzen ere, era askotarikoak izan daitezke, hala ere, kontuan izan behar da nahi hori izango dela irakurketaren gidaria. Ildo beretik, irakurleak irakurketaren inguruan egiten duen interpretazioa hein handi batean berak duen helburuaren arabera izango da; zeren eta, testu bakar batean interpretazio ezberdinak egin daitezke, helburua desberdina bada (Solé, 1987). Horrez gain, irakurtzea testuaren eta irakurlearen arteko interakzioa da, irakurleak berea egin behar du testua eta hau berak dakienarekin jarriko du harremanetan. Hau guztia indartzeko, Colomer eta Camps-en hitzak: "El acto de leer es concebido no sólo como proceso perceptivo, sino fundamentalmente como un proceso interactivo y creativo entre el lector y el texto, con la finalidad de comprenderlo e interpretarlo" (1996:33).

Irakurketa kontzeptuarekin amaitzeko, beste aditu batzuek irakurketaren inguruan dituzten pertzepzioak hurrengo lerroetan islatzea interesgarria izango litzateke. Era honetan, Smith-ek (1990), adibidez, irakurketa prozesuan begi bistako informazioa eta ikusten ez den informazioa bereizten ditu, biak irakurtzeko beharrezkoak direnak. Begi bistakoa informazioa testuak berak helarazten du eta ikusten ez dena, berriz, irakurlearen gaitasun linguistiko, interes, aurrezagutza eta irakurleak esanahia lortzeko duen helburuaren arabera izango da. Harste eta Burke-k ere antzeko iritzia daukate irakurle eta testuaren interakzioari erreferentzia egiten zaionean, era honetan definitzen dutelarik: "pensamiento estimulado por el texto impreso" (Harste eta Burke *in* Fons, 2004:22).

2.2. Haur literatura

Haur literaturaren inguruan hurrengo orrialdeetan hausnarketa ugari egingo direnez, beharrezkoa da kontzeptu honen nondik norakoak argi uztea. Era honetan ezinbestekoa da esatea, haur literatura, termino berria dela, orain dela mende eta erdi

sortua, gutxi gorabehera. Honen ondorioz, gutxi izan dira arlo honen inguruan eginiko ikerketak. Ikerketa horietatik definizio bat lortzen saiatu badira ere, azkenean denek jo izan dute hartzailearen ezaugarrietara; hots, haurrak direla literatura mota hau definitzen dutenak (Etxaniz, 1996). Irakurketaren zenbait definizio aipatzekotan, hasteko Juan Cerverak Bilbon 1990eko martxoan emaniko hitzaldi bateko hitzak, hurrengo lerroetan islatuko direnak. Horrela ba, honela definitu zuen haur literatura: "Toda producción que tiene como vehículo la palabra con toque artístico" (1992:11). Marisa Bortolussik ere antzeko iritzia dauka: "la obra estética destinada a un público infantil" (1985:16). Peter Hunt ikerlari ingelesarentzat, berriz: "Haurtzaroan dauden pertsonen irakurritako, beraientzat aproposak, edo atsegingarriak diren liburuak" (1991:61). Era honetako definizioen zerrenda oso luzea da, eta nekagarria izango litzateke denak aipatzea, dena den, definizio horietatik atera daitekeen ondorioetako bat izan liteke aurrez aipatutakoa, hau da, haur literaturaren definizioa eratzekoan hartzailea kontuan hartu behar dela.

Bestalde, kontzeptu honen ideia nagusiak hurrengo puntuetan banatu daitezke, jarraian labur-labur azalduko direnak. Lehenik eta behin eta aurrez esan bezala, adin konkretu bati egokitutako produkzio literario da, adin horri dagokion ezaugarri, interes eta beharren arabera tonua, gaia, hizkuntza eta irudiak erabakiko dira. Horrez gain, testu liburuak ez dira haur literatura moduan kontsideratuko, nahiz eta, salbuespen batzuk egon (Colomer, 2010). Ildo beretik, helduen liburuak gehienetan ez dira haurrentzako egokiak, baina kontrako kasua ematen da haurren literatur testuekin. Izan ere, haur literatura helduak hunkitzeko eta euren interesa pizteko gai da (Tejerina, 1994). Joxemari Iturralde dioen moduan, "kontua da literatura ona bada, kalitatezkoa, ez duela adinik (*in* Etxaniz, 1996:14). Pello Añorgak ere uste berbera dauka, hau da: "Haur literatura ez dela haurrentzat bakarrik. Zeren haur literatura, lehenik eta behin, literatura baita. Eta literaturak arte orok bezala, ez duela adinik" (2009:16). Ez hori bakarrik, literatura mota honek mundua beste era batera ikusten eta beste pertsona baten tokian jartzen laguntzen du, beraz, elkar sozializatzeko tresnatzat har daiteke (Colomer, 2010).

2.2.1. Haur literaturaren onurak

Haur literaturak gizarte honetan bere tokia edukitzeko, ezinbestekoa da haurrengan irakurketak dakartzan onurak aipatzea. Izan ere, haurrak literatur munduan murgiltzerakoan, oraindik ere badago zerbait huts egiten duena, horren adibide gisa

2012an Espainiako estatuan burututako PISA txostena. Honek dionaren arabera, ulermenean oinarritutako irakurketa ikasle espainiarren artean dagoen bataz bestekoa, 488 puntukoa da (lortu beharreko bataz bestekoa baino 8 puntu gutxiago), eta 34 herrialdeetatik, Espainia 23.postuan kokatzen da, nahiko baxua dena. Datu hauek ondorioztatzen dutenagatik, derrigorrezkoa da literaturak haurrengan duen garrantzia azpimarratzea, baina, batez ere, txiki-txikitatik ohitura horiek haurrengan barneratzeak ekartzen dituen onurak aipatzea.

Era honetan, haur literaturak haurrengan ekar ditzakeen onurak anitzak dira eta jarraian garrantzitsuenak aipatuko dira. Hasteko, irakurketaren bidez, hausnarketara, memoria garatzera, behaketa eta sintesi gaitasuna lantzeraz eta arreta mantentzeraz behartzen duen informazioa jasoko du haurrak. Honekin batera, haurraren hiztegia aberasten joango da, Colomerrek dioen moduan: "La literatura ayuda a los niños a descubrir que existen palabras para descubrir el exterior, para nombrar lo que ocurre en su interior y para hablar sobre el lenguaje mismo" (2010:20). Hiztegia garatzearekin batera, ortografian ere aurrerapen txikiak jasango ditu eta poliki-poliki egitura sintaktikoak barneratzen joango da. Honek esan nahi du, haurraren ahozko eta idatzizko gaitasuna garatu egingo dela eta hau garatzearekin batera, kontzeptuak, sentimenduak, ideiak eta pentsamenduak antolatze eta adierazteko ahalmena (Smith, 1983).

Ildo beretik jarraituz eta irakurketak dakartzan onurak aipatzearekin segituz, garrantzitsua da esatea irakurtzerakoan haurren kuriositate zientifikoa sustatu eta interes eta zaletasun ezberdinak pizteko baliagarria dela. Antzeko iritzia dauka Esther Hervás Anguitak: "El niño al leer aumenta su habilidad de escuchar, desarrolla su sentido crítico, aumenta la variedad de experiencias, y crea alternativas de diversión y placer para él" (2008:3). Era berean eta hitz gutxitan laburbiltzeko, haurrek literatur liburuak irakurriz bizitzari zentzua ematen ikasiko dute, literatur liburuak horretarako tresna bikainak baitira, Bruno Bettelheim-en ustez.

Actualmente, como en otros tiempos, la tarea más importante y, al mismo tiempo, la más difícil en la educación del niño es la de ayudarlo a encontrar sentido en la vida. [...] Cuando los niños son pequeños la literatura es la que mejor aporta esta información (1977:10).

Haur literaturak, beraz, funtzio hezitzailea betetzen du (Bettelheim, 1977). Izan ere, tresna hauen bitartez, munduari buruz hitz egiteko eta hura ulertzeko balio duten irudi, ikur eta mito ezberdinak eskaintzen zaizkie belaunaldi berriei eta hauek beste pertsona batzuekin konparti ditzakete. Gainera, ikaskuntza garatzeko bidea da, errealitatearen errepresentazioa baita. Ez hori bakarrik, liburuen munduan murgilduz, barne munduaren eta kanpo errealitatearen artean espazio berezi bat dagoela sentituko dute haurrek, sentimendu eta emozioz beteta dagoena. Colomerrek dioen moduan aipatutako mundu horretan: "se puede ser otro sin dejar de ser uno mismo" (Colomer *in* Montserrat, 2001:215). Hortaz eta aurrez esan bezala, sozializatzeko tresnatzat har daiteke haur literatura (Colomer, 2010).

Egun oraindik, irakurketaren garrantzia ukatzen duen norbait balego, aurrez aipatutako arrazoiak nahikoak dira literaturari bere lekua eta garrantzia emateko. Horregatik da hain garrantzitsua Haur Hezkuntzako etapan haurrak irakurketan murgiltzea eta ipuinak ikaskuntzan ezinbesteko baliabide izatea.

2.3. Liburutegia eta eskolaren arteko erlazioa

Liburutegia eta eskolaren arteko erlazioan barneratu baino lehen, garrantzitsua da gertakari bati buruz hitz egitea, honako hau oso erlazionatuta baitago bien arteko lotura horretan. Bilakaera horrek 1955. urtean hartu zuen bizitza, eta haur eta gazte literaturaren garapena bermatzerako orduan izugarrizko garrantzia izan zuen. IBBY-ren sorrera da literaturarekin erlazionatutako aldaketa positiboen oinarria. International Board on Books for Young people (IBBY) UNESCO-k sortutako nazioarteko erakundea da eta honen sorreraren helburua ipuinen bitartez ulermena bultzatzea da eta baita literatur liburuen irizpide artistiko eta literarioak bultzatzea, kalitatezko liburuak sustatzeaz gain. Ez hori bakarrik, liburutegi publikoak bultzatzeko ahalegin guztia egiten du. Laburbilduz, haur literatura eskoletan lantzeaz arduratzen den erakundea da. Beraz, IBBY oso garrantzitsua izan zen liburutegi eta eskolaren arteko erlazioa estutzeko (Peña Muñoz, 1994).

Erakunde hori nazio anitzetako herrialdeetan banatuta dago, atal ezberdinen bitartez. Atal horiek, instituzio ofizial edo erakunde pribatuek osatzen dituzte eta horien

lana kalitatezko liburuen sustapena da (Peña Muñoz, 1994). Euskal Herriaren kasuan, Galtzagorri elkarteak izango litzateke atal garrantzitsu horietako bat. Izan ere, Galtzagorri, Organización Española para el Libro Infantil y Juvenil (OEPLI) erakundearen barneko atal bat da eta aldi berean, OEPLI IBBY-ren atal bat da estatu espainolean. Hau da, IBBY-ren helburuak Espainian aurrera eramateaz arduratzen den erakundea da, OEPLI. Galtzagorri elkarteak 1990. urtean sortu zen eta honen xedeak oso argiak dira. Alde batetik, irakur zaletasuna haurretan zein gazteetan bultzatzea eta bestetik, Euskal Herriko haur eta gazte literatura ezagutzera eramatea. Honekin esan nahi da, literatur mota honekin erlazionatuta dagoen edonork egin dezakeela lan bertan. Horien artean daude, idazle, irudigile, irakasle zein liburuzainak, beste askoren artean. Hitz gutxitan esateko, haur eta gazte literaturaren inguruan interesa duen edonork parte har dezake bertan (Alustiza, 1999).

Kalitatezko liburuen sustapena egiten duen elkarte honen azalpenarekin amaitze aldera, esan behar da Galtzagorri elkarteak dela Espainia mailan egiten diren lehiaketetara, euskal hautagaiak aukeratzeaz arduratzen dena. Lehiaketa horien artean daude, adibidez, Lazarillo Saria edo Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala. Era berean, erakunde hau da, IBBY-k duen Ohorezko Zerrendara idazle, irudigile edota itzultzaileak eramaten dituen, baita Andersen Sarietara hautagaiak bidaltzen dituen ere (Alustiza, 1999).

Gertakari hartatik eta denboraren poderioz, liburutegiak indarra hartzen joan dira eta gero eta garrantzia gehiago daukate eskolako ikaskuntzan. Horrez gain, poliki-poliki liburutegiak haurren munduaren parte bilakatzen ari dira. Hala ere, lan hau eskolaren eta liburutegiaren arteko lotura hori gehiago indartzeko proposamena da eta horretarako, irizpide batzuk emango dira hurrengo orrialdeetan. Bestalde, ez da ahaztu behar eskolak ere, bere aldetik ahalegin osoa egin behar duela haurrak liburutegira gerturatzeko. Eginkizun horretan, zeresan handia edukiko du irakaslearen jarrerak, hein handi batean bere esku baitago haurren irakur zaletasuna bultzatzea eta baita haurrak liburutegira gerturatzeko asmoa ere (Colomer, 2010). Azken hau, hezitzaileak hiru eratarik antola dezake. Alde batetik, eskola eta liburutegi publikoaren arteko harremana estua baldin bada eta bertako langileekin adostasun batera iritsi ondoren, haurrak bertara eraman daitezke. Beste alde batetik, haurrak ikastetxeko liburutegira eramatea onuragarria da, ohitura hori haurrengan barneratzea ezinbesteko eginkizuna baita eta azkenik,

hezitzaileak ikasgelan egin dezake lanik oparoena, liburutegi moduko bat sortuz haurrekin, liburutegi txokoa izen moduan har dezakeena (Rueda, 2005).

Aipatutako guztia, jarraian azalduko da zehatzago eta baita, irakur zaletasuna berpizteko egin daitezkeen jarduera ezberdinen aipamena ere, irakaslearen jarrera nolakoa izan behar duen azalduz. Ez hori bakarrik, irakurzaletasuna bultzatzeko, gurasoen parte hartzea funtsezkoa da eta hori lortzea eskolaren esku dago. Marko teorikoarekin amaitze aldera, kalitatezko literatur liburuen aukeraketan jarraitu beharreko erizpideak zeintzuk diren argituko da, azken proposamena egiteko, hau da, 100 liburuen zerrenda burutzeko oso lagungarria izango baita. Izan ere, ez da ahaztu behar haurrak ezin ditugula edozein libururen aurrean ipini, kalitatezko liburuak izango dira benetan umeen irakur zaletasuna piztearen ondorio argia (Colomer, 2010).

2.3.1. Haur liburutegietan murgilduz

Haur liburutegiak haurrengandik gertu egotea funtsezkoa da. Hasteko, edozein haur liburutegi askatasun eta bizikidetzarako gune gisa hartu behar da. Haurrek bertan, nahi dituzten material, baliabide eta zerbitzuak hautatu, nahi duten guneetatik igaro eta gustuko dituzten jardueretan parte hartzeko askatasun osoa edukiko dute. Bete beharreko baldintza gainontzeko erabiltzaileen askatasunarekiko errespetua izango da (Lloret, 2006).

Ildo beretik, eskolak bere aldetik egin dezakeen ekarpenean murgilduz, esan beharra dago bi era ezberdin dituela. Bata, herriko liburutegira eramanez eta bestea, ikastetxean liburutegi aktiboa sortuz, bertara joateko ohitura haurrengan barneratuz (Rueda, 2005). Eskolak lehenengo zereginen egin dezakeena, haurrak herriko liburutegira eramatea da, baina hau ez da egunero egingo den eginkizun bat, aldian-aldian egin daitezkeen jarduera bat baizik. Horregatik, eskolak liburutegi publikora gerturatzeko ahaleginean egin dezakeen bakarra, gurasoei liburutegira joateko gonbita luzatzea da (Rueda, 2005). Horrez gain, liburutegian aurrera eramaten diren ekintza berezien (ipuinen eguna, ipuin kontalaria, ...) parte hartzaile bilakatu ahal ditu. Hitz gutxitan esateko, liburutegia espazio arrotz batekin ez erlazionatzea nahi da, haurrak gustura, lasai eta hauek disfrutatzea da lortu beharreko helburua (Colomer, 2010).

Liburutegi publikoetara gerturatzeaz gain, ikastetxeak zentroan liburutegi bat sortzeko ahaleginak egin behar ditu, aurrez esan den bezala. Izan ere, argi dagoena da, ikastetxean liburutegi bat edukitzeak, honen funtzionamendua egokia izanik, izugarriko aurrerapena suposatuko duela, haurrak literatura munduan murgiltzeko prozesuan. Matak dioen bezala "está más que demostrado que los índices de lectura en un centro aumentan de manera fulminante a poco que la biblioteca funcione con constancia y diligencia" (2008:152). Beraz, ikastetxeko liburutegian gauzak ondo egiten badira, ikaskuntzan funtsezko funtzioa beteko luke eta horretarako, beharrezkoa da literatur testuak haurrengandik gertu egotea, umeei irakurtzeko esperientzia eskaintzarekin batera (Mata, 2008).

Ikastetxeko liburutegia eskura edukitzeak duen garrantzia Rafael Ruedaren (2005) liburuan aipatzen diren Miguel Angel Marzal-en hitzek oso ondo argitzen dute:

La biblioteca permite, si se utiliza como laboratorio de aprendizaje y no sólo de depósito de libros, considerar una clase como el conjunto de individuos con circunstancias propias y diferenciadas, pero también como un grupo con entidad propia y diferenciada. Es evidente, que cada alumno tiene necesidades e intereses específicos, motivaciones personales y un ritmo y estilo de aprendizaje propios en los distintos niveles de conocimiento adquirido. [...] En una clase, pues, puede encontrarse una gran variedad de niveles en el desarrollo intelectual. En la biblioteca, el alumno puede elegir, según sus intereses, necesidades y nivel de desarrollo intelectual, la información para uso y asimilación personal (*in* Rueda, 2005:11).

Marzalek (1991) esandako hitzak kontuan hartu behar dira, ikastetxeko liburutegiaren helburuak sortzerako momentuan, eskolako liburutegia ez baita izan behar liburuak gordetzeko biltegi soila, ikaskuntza dinamizatu eta haurra momentu batez protagonista bilakatzen duen lekutzat hartu behar da. Era berean, hurrek kurtsoan zehar erabiliko dituzten liburu guztiak bertako apaletan egongo dira eta irakasleak ados jarri ondoren, liburu horien kudeaketa nola moldatuko duten erabaki beharko dute. Izan ere, Haur Hezkuntzako literatur testu gehienak garestiak izaten dira eta honen ondorioz, liburuak errepikatuak eduki beharrean, hobe litzateke antolamendu on bat edukitzea, liburuen banaketa egoki bat egiteko (Rueda, 2005).

Jakina da, ikastetxearen egoera ekonomikoaren arabera agian zaila izan daitekeela liburutegi bat mantentzea, urtero liburu berriak txertatu behar baitira, zaharkituak geratu direnak albo batera utziz. Hala ere, Ruedaren (2005) ustez, liburutegi bat sortzeko beharrezkoa den materiala era ezberdinetara lor daiteke. Hasteko, gurasoekin hitz egin daiteke, eta hauen egoeraren eta adostasunaren arabera diru kopuru bat eskaini dezakete; dirurik ezin badute eskaini liburuak ekar ditzakete, horren orde. Bestela, argitaletxeekin edota herriko udaletxearekin hitz egin daiteke, dirua edo liburuak lortzeko. Aurrez aipatutakoak ez badu etekin positiborik izan, herriko liburutegi publikoari liburu kantitate bat mailegutzat eskatzea izango litzateke azken aukera; beti ere, urte amaieran bueltatzeko hitzarmen bat eginez.

Haur liburutegiekin amaitzeko, beharrezkoa da esatea denen (liburutegiko arduraduna, irakasle eta guraso) ahaleginarekin etekin positiboak lor daitezkeela, eta haurrengandik liburuak gertu edukitzea ez dela zaila, gehienbat espazioak kudeatzen jakitearekin eta haurrei esperientzia literarioak eskaintzearekin aski da, nahiz eta beste faktore batzuk egon (Colomer, 2005).

2.3.2. Irakurtzeko txokoa eskolan

Liburutegien laguntzaz gain, argi utzi behar da irakurketa 0-6 urte bitarteko haurretan sustatu ahal izateko, lanik aberasgarriena gelan bertan egin behar dela. Honen ondorioz, beharrezkoa da irakurketari ikasgelako gune berezi bat eskaintzea, liburu anitzez eratua egongo dena. Gune honek, hain zuzen ere, irakurketa txoko izena hartuko luke (Rueda, 2005).

Espazio honetan, irakurketa giroa egon behar da eta baita denbora eta espazio antolamendu egokiak ere. Ildo beretik, irakurketa txokoa sortzeko, kontuan hartu behar da eskura dauden baliabide eta materialak eta baita horretarako dagoen espazio fisikoa ere, hauek haurren behar eta ezaugarrietara zuzenduta egon behar baitute (Rueda, 2005). Ez hori bakarrik, txoko honek haurren atenzioa erakarri behar du, eurentzat motibatzailea izan behar duelarik. Colomerrek dioen moduan: "El espacio de las aulas donde se aprende a leer son lugares especialmente necesitados de una organización comprensible y estimulante para los aprendices del lector" (2010:73).

Gune honek, batik bat, hiru helburu ditu, Ruedaren *La biblioteca de aula infantil* liburuan oso ondo azaltzen direnak. Lehenengo bi helburuak: "el rincón debe servirles para relacionarse con los demás, objetivo prioritario de esta etapa educativa, pero también deben aprender a emplear ese espacio de manera autónoma" (2005:18). Honek esan nahi du, irakurketa txokoa edukitzeak bi funtsezko xede dituela; bata, gainontzekoekin erlazionatzen jakitea, eta bestea, haurraren autonomia garatzea. Azken helburua, haurrak literatur munduan murgiltzea eta jarduera hau plazerrarekin erlazionatzea izango litzateke (Mata, 2008).

Txoko honen bidez, haurrak ikasiko du irakurketa banakako zeregina dela eta baita isilunean burutu beharreko ekintza. Horrez gain, aurrez aipatutakoa, hau da, haurrak autonomia osoarekin eta bere zaletasun eta beharren arabera nahi dituen ipuinak aukeratzeko posibilitatea izango du, Gianni Rodarik (2004) dioen moduan, egokiena izango litzateke haurrari nahikoa goiz libre uztea, beraien liburuak aukeratzeko, garrantzi osoa baitauka haurrek era libre batean liburuak aukeratzeko, euren irudimenari jaramon eginez. Hitz gutxitan esateko, txoko honek leku lasaia eta motibatzailea, aldi berean, behar du izan, haurrek euren intereseko gauza ezberdinak ikertzeko, aurkitzeko, arakatzeko eta informazioa bilatzeko (Figueres eta Pujol, 2006).

2.3.3. Liburutegiak eta irakurketa animazioa

Hurrekin, bai liburutegi publikoan, bai ikastetxeko liburutegian, zein ikasgela dinamikan burutuko diren eta irakurketa mundura hurbiltzeko helburua duten jarduera ezberdinei "irakurketa animazio" izena ematen zaie (Mata, 2008). Kontzeptu honen jatorria, 80. hamarkadan kokatzen da. Maria Montserrat Sartok (2000) aitortzen duen moduan, Dworp herrialdean 1974. urtean burututako asanbladan hasten da dena. Bertan, irakurketak zuen garrantziari buruz eztabaidatzen hasi ziren, baita haurren kalitatezko liburuek zenbaterainoko onurak ekar zitzaketen ere. Izan ere, garai hartan irakurketa ikaskuntzarekin erlazionatutako eta esangurarik gabeko jarduera soila zen. Egoera hura aldatu nahian, herrialde anitzetako adituak elkartu ziren asanblada hartan eta irakurketa berpizteko zerbait egin behar zutela konturatu ziren. Beraz, batzarreko partaide bakoitzak bere herrialdean irakurketarekin erlazionatutako jarduera ezberdinak praktikan jartzeko konpromisoa hartu zuten. Jarduera horietan dago, hain zuzen ere, irakurketa animazioaren bizitza (Mata, 2008).

Gauzak horrela, garai hartan irakurketa sustatzeko indarra hartu zuten jarduerak, gaur egun oraindik aurrera eramaten diren ekintzak dira. Ariketa hauek, besteak beste, oso garrantzitsuak izango dira Haur Hezkuntzako etapan, haurren irakur zaletasuna piztu nahi bada eta honako hau, proposamen honen helburuetariko bat denez, garrantzitsua da kontzeptu honi erreferentzia egitea. Irakurketa animazioa zertan datzan jakiteko, Carmen Olivaresek egindako definizioa islatuko da jarraian: "Un acto consciente, realizado para producir un acercamiento afectivo e intelectual a un libro concreto, de forma que este contacto produzca una estimulación genérica hacia los libros" (*in* Quintanal, 2000:110). Ildo beretik, ariketa multzo hauek lantzearen helburuak, haurrak gehiago irakurtzea, hobeto irakurtzea eta interes eta curiositatearekin irakurtzea dira. Honako hau indartzeko Carmen Barrientosen hitzak:

Hacer que los niños se conviertan en el tipo de lectores que leen para sí, para obtener respuesta a sus interrogantes más vitales, para divertirse, para soñar, para poner en marcha su imaginación, en fin, para sentirse inmersos dentro de la gran aventura que lleva consigo leer (1982:7).

Dena den kontuan eduki behar da, irakurketarekin erlazionatutako edozein jarduera, ez dela irakurketa animazioa. Hori dela eta, oso argi eduki behar da irakurketa animazioa osatzen dituzten jarduerak zeintzuk diren (Mata, 2008). Honen garrantzia hobeto ulertzeko, ESTEL elkarteko kide batek, María Francisca Ripoli Espiasek, 2003an eginiko hausnarketa gogoratzea lagungarria izan liteke.

El problema radica, a mi parecer, en que la palabra animación ha sido tomada en muchos sentidos diferentes y no siempre afortunados. ¿Es animación a la lectura el que una persona vestida de payaso entre en la clase con una maleta llena de libros e invite a leer a los alumnos? ¿Es animación a la lectura llevar a un grupo de niños a ver una exposición de libros? [...] ¿Es animación a la lectura obligar a un niño a hacer una ficha de cada libro que haya leído? (Ripoli, 2003: 21).

Hau irakurri ondoren, aurrez aipatutakoak zentzu gehiago hartzen du, hau da, irakurketarekin erlazionatutako edozein jarduerak ez duela irakurtzera motibatzen. Era honetan, argi eduki behar da irakurketa animazioa hurrei aukera ezberdinak eskaintzeko modu bat dela, ipuinak hurrei gerturatzeko helburuarekin. Jarduera hauen

bitartez, ipuinak begi bistan eta hurrengandik hurbil egotea lortu nahi da, apaletan hautsez bete gabe (Mata, 2008). Ez hori bakarrik, haurren garapena ere, kontuan hartu beharrekoa da jarduerak planteatzerako orduan, baita euren behar eta interesak zeintzuk diren (Moreno, 2000). Hitz gutxitan esateko, Blanca Calvok esandakoa: "Comprende cualquier actividad orientada a aumentar el número de personas que disfrutan con los libros" (1999:5). Hau da, edozein jarduera burutuz, haurrak irakurtzea plazerrarekin erlazionatzen badute, irakurketa animazioa izango da, kontrako kasua emanez gero, ez.

2.3.4. Irakaslearen zeregina

Marko teoriko honetan aipatutako guztia era egoki batean lantzeko eta haurrak irakurketan barneratzeko, irakasleak irakurtzerakoan erakusten duen jarrera oso garrantzitsua izango da. Irakaslearen jarrera parte hartzailea eta motibatzailea izan behar da uneoro eta ez hori bakarrik, irakurketarekiko interesa aurkeztu behar du. Izan ere, irakasleak gustura, sentimenduarekin eta jakinminarekin irakurtzen baditu istorioak, era berean sentituko dituzte ikasleek. Bestalde, ikasleei egunero irakurri behar zaie eta irakurketaz egunero hitz egin behar zaie, euren egunerokotasunaren parte izan dadin, eta ez jarduera arrotz soila (Rueda, 2005). Honako hau, hein handi batean, irakaslearen menpe egongo da.

Ildo beretik, irakurketa ikasgelan sustatzeko premiazkoa da irakasleak liburuak maitatzea, haur eta gazte literaturari buruzko oinarrizko ezagupen batzuk edukitzea eta, batez ere, argi izan behar du irakurtzea ez dela inoiz denbora galtzea edota Agustín Fernandezek dioen moduan: "materia benetan garrantzitsuen arteko hutsuneak betetzeko baino ez den bigarren mailako jardura" (1999:32).

Horrez gain, ipuinak kontatzerako orduan, irakasleak kontuan eduki behar ditu Pello Añorgaren hitzak: "Heldua zenbat eta naturalagoa izan eta bere barneko haurra zenbat eta biziago eduki, orduan eta kontalari handiagoa izango da. Ahotsa eta jarrerak landuago edukitzeak ere laguntzen dute" (*in* Irusta, 2010:22). Baina, idazle honen ustez, hiru gauza dira funtsezkoak. Bata, istorio bat edukitzea. Bestea, istorioa kontatzeko gogoia eta azkena, istorio hori kontatzeko momentu egokia bilatzea. Guzti hau, irakaslearen zereginaren barne egongo da, baina komenigarria da jarraian islatuko diren Añorgaren hitzak kontuan hartzea: "Idatzia dagoena bizkarrezurraren parekoa da. Eta

kontatu nahi baduzu, zure haragia eskaini behar diozu, zeure begiak, zeure ezpainak, zeure hankak, zeure arnasa, erritmoa, tonua...; hitz batean esateko: zeure gorputz osoa" (*in* Irusta, 2010:10).

Irakasleak, azken finean, irakurketari mesedegarri izango zaion giroa sortu behar du eta horretarako, ariketa ezberdinak erabil ditzake: ikasgelako liburutegia sortzea, ipuin eta poemak ozenki kontatu eta irakurtzea, komikiak sortzea, beste jarduera askoren artean. Hitz gutxitan, irakaslearen nahia eta literatur testu egokiak edukitzea baino ez da behar (Fernandez, 1999).

2.3.5. Familiaren parte hartzea

Irakasleen eta eskolako gainontzeko kideen parte hartzeaz gain, garrantzitsua izango da familiaren laguntza izatea, haurrak irakurketa munduan murgiltzerako momentuan. Colomerrek dioen bezala: "Sumergir a los niños en un mundo donde los libros existan implica la participación de toda la comunidad educativa, así como de las familias. Las actividades de lectura deben hallar eco más allá del aula" (2010:74). Horrez gain, Mataren (2008) iritziz, liburuenganako maitasuna etxetik dator, bertan sortuko da lehenengo kontaktua eta hau aldaezina izan ez arren, egia da lehenengo urteetan ikasten denak bizitza gutzirako irauten duela. Beraz, gurasoen parte hartzea lortzea nahitaezkoa izango da. Hau indartzeko, Mataren hitzak: "involucrar a las familias en la promoción de la lectura es una prioridad" (Mata, 2008:160).

Ildo beretik, haurrak gurasoekin burutzen dituzten lehenengo irakurketak ondorio nabarmenak edukiko dituzte txikiengan, egindako ikerketa zientifiko ugari horrela adierazten dutelarik. Umea zenbat eta maitatuago sentitu eta gurasoenganako erlazioa zenbat eta estuago izan, jarduera konplexuagoak burutzeko gaitasuna izango du. Horien artean dago, hain zuzen ere, liburuenganako interesa eta maitasuna. Hau da, gurasoen eta haurraren arteko erlazioa estua bada, erraztasun gehiago edukiko du umeak irakurketari atentzioa eskaintzeko eta baita testua ulertzeko ere (Mata, 2008). Aipatutakoa hobeto ulertzeko, Adriana G. Bus eta Marinus H. va IJzendoorn-ek (1995) eginiko ikerketa baten emaitzak, Mataren hitzetan:

Investigadores de la Universidad de Leiden, realizaron con 350 madres que leían a sus hijos de 3 años. Mediante encuestas y observaciones directas llegaron a la

conclusión de que las diferencias en el apego entre padres e hijos explicaban las diferencias a la hora de leer libros a los niños. Cuanto más intenso es el vínculo afectivo entre unos y otros más frecuentes son las actividades de lectura y, por lo tanto, más seguro es el desarrollo cognitivo de los niños (*in* Mata, 2008:161).

Guzti honekin, argi geratzen da gurasoek zeresan handia izango dutela haurrak irakurketa prozesuan murgiltzerakoan. Beraz, beraien esku dago ahalegina. Egokiena etxean liburu anitzak edukitzea da, edozein jostailu egongo den bezala. Ez hori bakarrik, kalitatezko liburuak haurrei eskaintzea funtsezkoa da (Colomer, 2010).

2.3.6. *Materialen aukeraketa*

Marko teorikoarekin amaitzeko eta artikuluko honen azken proposamena burutzeko, beharrezkoa da materialen aukeraketa egiteko nahitaezkoak diren pautak batzuk ematea. Izan ere, irakurketari eskainitako denbora apurrari ahalik eta etekin gehien ateratzen jakin behar da eta hau, haurrei kalitatezko literatur testuak eskainiz lortuko da (Colomer, 2010). Horregatik, baztertu behar dira Colomerrek bere liburuan Genieviève Patte-ren hitzak erabiliz aipatzen dituenak: "Libros que no son nada, libros escritos por cerebros de segunda fila, que llenan el tiempo huidizo de la infancia con lecturas que no dejarán ninguna huella" (Colomer, 2010:191).

Kalitatezko liburu horien aukeraketa egiteko jarraitu beharreko zehaztapenak ugariak dira eta jarraian era labur batean adieraziko dira. Hasteko, liburu bat egokia den edo ez jakiteko, kontuan eduki behar da literatur testua nori aurkeztuko zaion, bere adina aintzat hartzeko. Honako informazio hau, liburuan bertan aurki daiteke. Dena den, askotan honek ez du funtzionatuko, haur bakoitzak bere garapen propioa duelako. Beraz, Gemma Lluch-en hitzetan (2010), haurren garapen kognitiboa eta irakurtzeko dituen gaitasunak hartu beharko dira kontuan. Era honetan, Pedro Cesar Cerrillo-ren (2007) hitzak erabiliz, Lluch-ek (2010) hurrengo dio:

Proponemos una serie de características que hacen más atractivos los libros para cada edad lectora teniendo en cuenta el desarrollo de los niños y jóvenes como lectores, en arreglo a su edad y grado escolar. Aunque de nuevo recordamos que solo puede ser usado de modo de orientación, ya que cada niño crece a su propio ritmo y requiere de atenciones diferenciadas (Lluch, 2010:72).

Horrela ba, adinaren araberako sailkapen moduko bat egingo du Lluch-ek. Honen arabera, haurrak jaiotzen denetik hiru urte betetzen dituen arte, agian ez du testuan agertzen diren hitzen esanahia ulertuko, baina erritmoa eta musikan jarriko du atentzioa. Beraz, etapa honetan ahozkotasanak zeresan handia edukiko du. Ondoren, hitz gutxiko testu ilustratuek hartuko dute indarra eta ipuinen formatuari dagokionez, haurrek erraz manipula ditzaketenak izango dira egokienak (Lluch, 2010). Hiru urtetik aurrera, berriz, haurrek hiztegia aberatsagoa izango dutenez eta gauza berriak ikasteko irriketan egongo direnez, euren egunerokotasunarekin erlazionatutako literatur testuetan, fantasiakoetan, informatiboak direnetan eta poesiazoetan, beste batzuen artean murgiltzea komeni da. Lluch-ek oso ondo azaltzen du horien formatuak nolakoak izan behar diren "el tipo de formato adecuado a los movimientos de sus manos, la tipografía que ayude a contener en una página la unidad temática y la ilustración como elemento que complementa y enriquece el texto" (2010:73).

Adinaren araberako sailkapen txiki bat egin ostean, komeni da literatur testua bera, egokia den ala ez jakiteko ezaugarri batzuk aipatzea. Modu honetan, lehenengo literatur testuaren azala begiratu behar da, haurrak hasiera batean elementu grafikoetan jarriko baitu atentzioa eta bertatik jasoko du ipuinarenganako lehenengo inpresioa. Istorioari dagokionez, ondo egituratutakoak izan behar dira, istorio sinpleak izatearekin batera, jarraipen logiko bat edukitzea atzera-aurrerako saltorik gabe, alegia (Colomer, 2005). Horrez gain, esaldi sinple eta koordinatuak erabili behar ditu, haurren ulerkuntza bermatzeko helburuarekin eta hiztegiari dagokionean, ahalik eta hiztegi aberatsena darabilten literatur testuak erabili behar dira. Colomerrek honen arrazoa oso ondo argitzen duelarik: "Hay que recordar que la mayoría de palabras que se aprenden a partir de un determinado momento proceden justamente de la lectura" (Colomer, 2010:193). Bestalde, istorioetan ezinbestekoa izango da hasiera eta amaiera egokiak edukitzea. Izan ere, hasierak haurra harrapatu behar du, bere atentzioa erakarriz eta amaierak, berriz, irakurritakoari zentzua eman beharko lioke (Colomer, 2005). Amaitzeko, literatur testuen irudiak aztertzea gomendagarria da. Hau da, irudiek istorioa ulertzen lagundu behar dute eta agian istorioan kontatzen ez diren zehaztasun batzuk gehitzen. Hala ere, irudiak eta testuak dioena bat etorri behar dute, jarraipen logiko bat edukiz.

Aipatutako ezaugarri guzti hauekin eta marko teoriko honi amaiera eman nahian, haurrak literatur testuarekin bat egitea eta horiengandik sentimendu bat sortzea, lortu nahi da. Hau guztia hobeto ulertzeko, Bettelheim-en hitzak:

El placer que experimentamos cuando nos permitimos relacionar ante un cuento, el encanto que sentimos, no procede del significado psicológico del mismo (aunque siempre contribuye a ello), sino de su calidad literaria; el cuento es en sí una obra de arte, y no lograría ese impacto psicológico en el niño si no fuera, ante todo, eso: una obra de arte (1977:20).

3. Proposamen honen justifikazioa eta helburuak

Marko teorikoa irakurri ondoren, jakina da irakurtzeak Haur Hezkuntzan izugarritzko garrantzia duela, baina egia da, baita ere, irakurketa prozesu horretan zerbaitek huts egiten duela. Irakurketaren bidez, gaitasun asko barneratzen dira eta hitz gutxitan esateko, haurrengan garapen egoki bat eman dadin irakurketa mundura hurbiltzea beharrezkoa da. Dena den, errealitatera bueltatuz eta Federación de Gremios de editores de España estatistiketan oinarrituz, populazioaren %40ak, gutxi gorabehera, oraindik ez dauka irakurtzeko ohiturik. Hau literaturari denbora luzez eman zaion garrantzia eskasaren ondorioa izan daiteke, orain arte, jendeak literaturaren berezko garrantzia hori ukatu baitu (Cervera, 1991).

Badirudi, urte horietan emandako egoera poliki-poliki aldatzen joan dela eta egungo errealitatea oso bestelako dela (Mata, 2008). Soilik arrazoi soziologikoei erreparatuz, gaur egun argitaratzen diren literatur testuak anitzak eta aberatsak dira eta horien sorkuntzan lan egiten duten pertsonen zerrenda ere oso luzea da, literatura mundura hurbiltzen saiatzen direnak ahaztu gabe. Beraz, gero eta gehiago baloratzen da literatura eta irakurlearen arteko kontaktua (Cervera, 1991). Dena den, aurrez esan bezala, literatur testuetan murgiltzeko prozesu horretan, oraindik ere asko dago egitear.

Gizartearen irakurtzeko ohitura eta zaletasuna suspertu nahi badira, haurtzarotik hasia beharrezkoa da, gauza jakina baita txikitatik sortu behar dela zaletasun hori, gerorago garrantzia handiagoa izango duena (Bonnafé, 2008). Zaletasun hori sortzeko hiru eragile hartu behar dira kontutan. Hasteko, eskolan literaturari ematen zaion lekua

eta garrantzia. Bigarren eragilea, hurrek etxean bizi dutenarekin erlazionatuta egongo da, etxekoen artean irakurtzeko duten ohiturarekin, hain zuzen ere. Azkenik, irakurgaien atsegina eta erakargarritasunak ere, zeresan handia izango du (Colomer, 2010).

Literaturaren zaletasunean aurrerapena emateko eta irakurtzea atsegintasunez ikusteko eta aurrez aipatutako hitzak birgogoratuz, eskolak literatura bultzatzeko egiten duen ahaleginarekin ez da aski. Hau da, irakurle trebeak prestatzeko ardura ez dagokio soilik eskolari, hartan ere parte hartzen baitute familiak eta beste erakunde batzuek, horien artean liburutegia dagoelarik (Colomer, 2010). Horregatik, gurasoen parte hartze aktiboa bilatu nahi da, honek dakartzan ondorioak jada azpimarratu direlarik. Justifikazioarekin amaitzeko, garrantzitsua da Mataren (2008) esanak gogoratzea, hau da, halako edo bestelako irakurle egiten dela, norberak hala erabakita, baina baita hezkuntza prozesu luzeen emaitza modura ere.

Eta hori horrela izan dadin honako helburuak ditu xedetzat lan honek. 1. Irakurketaren eta Haur Literaturaren garrantzia azpimarratzea; 2. Irakurketa plazerrarekin erlazionatzea; 3. Material bilduma bat egitea; 4. Irakasleentzako zein gurasoentzako gida bat proposatzea; 5. Literatur testu egokiak hautatzeko irizpideak ematea; 6. Irakurketan murgiltzerako orduan, haur liburutegi bat edukitzeak izan dezakeen garrantzia azpimarratzea; 7. Irakurketari dagokionean, gurasoen parte hartze aktiboa izateak zertan laguntzen duen ezagutzea eta proposamenak egitea.

4. Metodologia

Kalitatezko literatur testuak hurrei eskaintzea beharrezkoa da eta horretarako, ezaugarri eta irizpide batzuegan jarri behar da arreta, irizpide horiek zeintzuk diren jakin eta horiei jarraitu, besterik gabe. Era berean, garrantzitsua izango da gaur egun indarrean dauden ipuinak erabiltzea, baina baita liburu klasikoak ere. Gure aldetik, proposamen hau burutuz, Haur Hezkuntzako liburutegi bat eratzeko inbentario bat luzatu nahi genuke, irakasle zein gurasoentzako gida moduko bat eskainiz. Era berean, literaturak Haur Hezkuntzan eduki beharko lukeen presentzia azpimarratu nahi dugu eta egoera aldatzeko, zenbait ideia gehitu nahi genituzke. Horrela ba, marko teorikoan jada argitu da nolakoa izan beharko litzatekeen literatura sustatu ahal izateko egoera idilikoak. Honi proposamen txiki eta aberats bat gehituko diogu, haurrak eta familiak liburutegira gerturatuz eta kalitatezko ehun liburuen zerrenda azkenengo xedea izanik.

Hau dena aipatuta, kalitatezko literatur testuen aukeraketa nola egingo den argitzea falta da. Lan hau zedarritze aldera, *item* batzuk jarri ditugu eta horiekin literatur testuen egokitasuna neurtzeko fitxa bat osatu dugu, geure testuak aukeratzeko nahiz eurak aurrerantzean hautatzeko lagungarria izan dakien edota aberastu dezaten. *Itemek* Teresa Colomerrek (2010) eta Gemma Lluchek (2010) literatur testuak aukeratzeko izan behar diren irizpideetan hartzen dute oin. Hasteko, testua norentzat zuzenduta dagoen hartu da kontuan, hau da, adina eta haurraren gaitasunak eta interesak aintzat hartu diren aspektuak dira; bigarrenik, testuaren literatur kalitatea eta azkeni, k literatur testu hauen funtzio aniztasuna. Azken horrekin esan nahi da liburu hauek, hiztegia, sormena, pentsamendua nahiz identitate eraikuntzan lagungarri izango direla. Hori egiaztatuta, literatur testuen egokitasuna ziurtatu da, ezaugarri zehatz batzuk kontuan hartuta. Dena den, egokitasun hori gehiago sakontzeko, Lluch-ek *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes* liburuan (2010) txertatutako taula bat erabili da (ikus 3. eranskina).

4.1. Haurrentzako Literatur egokiak aukeratzeko orduan kontuan eduki

Beharrekoak

1. Literatur kalitatea	1.1. Hasierak eta bukaerak	1.4.1. Hiztegiaren kalitatea adinaren baitan
	1.2. Azala, kontrazala, liburuaren testura.	1.4.2. Hiztegiaren literatur kalitatea
	1.3. Ilustrazioen kalitatea	
	1.4. Hizkuntza	
	1.5. Literatur kolpe edo efektuak	1.7.1. Sekuentzia narratiboak
	1.6. Sortzen duen barne iruditegiaren aberastasuna zehaztasuna eta kalitatea	1.7.2. Narratzailea
	1.7. Egitura	1.7.3. Pertsonaiak
	1.8. Gaiak	1.7.4. Espazioaren eta denboraren kudeaketa
		1.8.1. Sentimenduak eta emozioak: bakardadea, frustrazioa, maitasuna, beldurra; 1.8.2. Identitate baldintzak: giza eraikuntza, sexualitatea, gaixotasunak, heriotza; 1.8.3. Haurren egunerokotasuna: familia,

		eskola, oporrak; 1.8.4. Familia harremanak: gurasoen banaketa, abandonua, adopzioa, eta, anai-arreba baten jaiotza; 1.8.5. Kultura aniztasuna, erbesteratzea, langabezia, gerrak...
2. Umearen ulermen gaitasuna eta testuaren egokitasuna	2.1. Adina	2.2. Haurraren garapena eta ionteresak
	0-18 hilabete	Umeari irudiak begiratzea gustatzen zaio. Pertsonaiak ezagutzen hasten da.
	18 hilabete-3 urte	Ilustrazioa eta hitzaren arteko lotura egiten du. Objektuak identifikatu eta seinalatzen ditu. <u>Abilidade narratiboak</u> : Istorioak gogoratzen hasten da loturarik gabe.
	3-5 urte	Istorioan dedukzio logikoak egiten ditu. Kausa ondorio harremanak finkatzen ditu. <u>Abilidade narratiboak</u> : Denboraren nozioa ulertzen du.
	7 urtetik gora	Istorioaren logika ulertzen du. 5 urtetik aurrera istorioaren detaileak: pertsonaiak. Ekintzaren kausa ondorioak antzematen ditu.
3. Betetzen duen funtzioa	<p>3.1. Identitate eraikuntza (baloreen ezagutza, emozioen ezagutza, sentimenduaren garapena, hitzaren jabetza, pentsamenduaren garapena)</p> <p>3.2. Sozializazioa, norbera, ondokoak, bere ingurua eta historia ezagutzea</p> <p>3.3. Iruditegia ezagutzea eta garatzea: antzinatik literaturak ahoz jasotako sinbologia, mitologia, ipuinak eta ideiak</p> <p>3.4. Norberaren sormena eta pentsamendu dibergentea egituratzea eta garatzea.</p> <p>3.5. Hizkuntza eta hiztegia garatzea</p> <p>3.6. Jolastea eta gozatzea</p>	

4.2 Ipuin hauek beteko dituzten funtzioak eta honekin loturiko gaien baitan egin diren multzoketak

Fitxan azaldutako *itemak* buruan, proposamena burutzeko lehendabizi gai batzuk aukeratu ditugu, gai horien arabera literatur testu batzuk hautatuz. Gai horiek aukeratzeko orduan oso kontuan eduki dira ikasturtean zehar Haur Hezkuntzako 3 mailan praktiketan eskoletan haurrekin, nahiz Irakasle Eskolako ikasleek egiten dituzten antologietan sarturiko literatur testuak, denak ere, ikasleriaren nahiz haurren harrera ezin hobea izan dutenak. Gai horien aukeraketan, bestalde, Isabel Olid-ek Txabi Arnali

(2013) eginiko elkarrizketan oinarritu gara, batez ere. Bertan aipatzen den moduan, hurrekin era guztietako gaiak tratatu behar dira, poztasuna dakartenak eta baita tristurazkoak. Izan ere, bizitza horrelakoa da eta errealitatea den moduan aurkeztu behar diegu haurrei. Horregatik, tabuak hausten dituen liburu bilduma bat aukeratu dugu eta honekin lotuta, familia mota ezberdinei buruz hitz egiten duen beste talde bat. Bertan, gaur egun normalean tratatzen ez diren gaiak landuko dira, hurrek ere gertutasunetik ezagutu behar dituztenak. Era berean, literatur testu batzuk oraindik ere, garai bateko emakumearen irudia transmititzen jarraitzen dute, emakumearen baloreak gutxietsiz eta horiek, noski, baztertu beharrekoak dira. Hori dela eta, ipuin ez sextak diren batzuk aipatzea ideia ona iruditu zaigu, Mariasun Landaren (2011) iritzi berbera jarraituz. Horrez gain, Bettelheim-ek (1977) emozioak tratatzeari izugarrizko garrantzia ematen dio haurraren identitatearen garapenean, beraz, emozio ezberdinak lantzeko aukera luzatzen digun liburu multzo bat ere egongo da. Ikusten den moduan, gai bakoitzak badauka bere arrazoi propioa, baina denak aipatzea gehiegi luzatzea izango litzateke, aspergarria ere agian. Modu honetan eta era labur batean azaltzeko, gainontzeko gaiak eguneroko arazoak gainditzen laguntzen duten edota hurrek garai horretan barneratu beharreko ezagutza ezberdinekin erlazionatuta egongo dira. Aldi berean, gai bakoitza euren ezaugarri eta interesen arabera aukeratuak izan dira, motibatzaileak izateko esperoan.

4.3. Liburutegi aktiboa sortzeko proposamena

Behin literatur testuak aukeratzeko jarraitu diren *itemak* azalduta, gomendagarria da liburuak nondik lortu daitezkeen aipatzea. Liburu asko izanik eta haurrak literatura munduan murgiltzeko prozesu horretan, gurasoak inplikatzeko nahiarekin, familia bakoitzak hurrengo puntuan aipatuko den liburuen zerrenda luzetik liburu bat aukera dezake eta eskolara ekarri. Era honetan, literatur testu anitz lor genitzake. Horrez gain, herriko liburutegiaren parte hartzea oso lagungarria izango litzateke, honekin hitzarmen bat egin beharko luke ikastetxeak eta zerrenda horretako zenbat liburu lor litezken ikusi, beti ere, mailegu moduan eta hitzarmena medio, urte bukaeran itzultzeko konpromisoa hartuz. Aipatutako era ezberdinen bitartez, gure liburutegia sortuko genuke.

Literatur testuak esku artean edukita, Ruedak (2005) dioen bezala lortu behar dena da liburu horiek liburutegian hautsez ez betetzea, liburu horiei erabilpena eman

behar zaie, beraz. Hautsez ez betetzeko, egitasmo anitzak eramane daitezke aurrera, baina lan honen bidez proposatzen dugu irakasleek astean behin behintzat, liburutegi horretan egongo diren 100 liburu horietatik bat hartzea eta hurrei aurkeztea eta eurekin irakurriz gozatzea. Ez hori bakarrik, irakasleek astean behin haurrak liburutegira eramango dituzte eta bertan liburu bat irakurriko zaie. Horrez gain, liburuen irakurketa egiterako orduan, gurasoen kolaborazioa aprobetxatu daiteke. Horretarako, familiako kideren batek etxetik ekarri duen liburua irakurri diezaieke ikasgelako hurrei; beti ere, parte hartu nahi duten gurasoen laguntzarekin.

Ildo beretik, herriko liburutegiarekin hitz egin daiteke ipuin kontalari bat bertara eramateko, honako egitasmo hau bi hiletik behin egitea izango litzateke egokiena eta hau burutzeko, udaletxearekin hitz egin beharko da, nahitaezkoa den diru kopurua lortzeko helburuarekin. Ikastetxeak, bere aldetik, haurrak egitasmo horretara joateko gonbita luzatuko du; bai hurrei eta baita gurasoei ere. Laburbilduz, aipatutako jarduera ezberdinekin haurra literaturan barneratzeaz gain, gurasoen inplikazioa ere lortu nahi da prozesu horretan.

Amaitzeko, argi geratu behar dena da, guztion parte hartzea beharrezkoa dela haurrak literaturarekin gozatzeko, kalitatezko literatur testuak lortzeko, liburutegi bat sortzeko eta batez ere, haurrak bertara gerturatzeko. Guztion ahalegina da behar den bakarra; bai irakasle, bai familia, zein liburutegiko arduradunen kolaborazioa, alegia (Colomer, 2010).

5.EMAITZAK

EHUN LIBURU MENDE BATERAKO

FUNTZIOAK	IZENBURUA (argitaletxea, urtea)	EGILEA	URTEA
IPUIN EZ SEXISTAK	1. <i>Puf! Hau Nazka!</i> (Elkar, 1997)	Fina Casalderrey	+5 urte
	2. <i>Marixorren deskuidoak</i> (Erein, 1992)	Renada Mathieu	+5 urte
	3. <i>Arratsalde euritsua</i> (Elkar, 1987)	Marcia Leonard	+5 urte
	4. <i>Ada ez da inoiz beldurtzen</i> (S.M., 1992)	Isabel Córdova	+5 urte
	5. <i>Mari Joseri zergatik deitzen diote Jose Mari?</i> (Elkar, 1997)	Seve Calleja	+5 urte
	6. <i>Eta handia egiten naizenean zer?</i> (Elkar, 1988)	Elisabet Abeyá	+5 urte
	7. <i>Antton eta neskak</i> (Alberdania, 2008)	Ole Könnecke	0-4 urte
	8. <i>Txanogorritxu eta otso beltzu</i> (Ttarttalo, 2005)	Kukuxumuxu	0-4 urte
	9. <i>Arrosa eta leuna</i> (Pamiela, 2013)	Adela Turín	+5 urte
	10. <i>Pinto oilarraren ezteiak</i> (Txalaparta, 2011)	Juan Alfonso Belmontes	+5 urte
TABUAK HAUSTEN	11. <i>Kili-kiliak</i> (Bellaterra, 2012)	Alba Barbé, Sara Carro eta Nuria Fortuny	+5 urte
	12. <i>Berta</i> (Sirpus, 2002)	Paulina Vergés de Echenique	+5 urte
	13. <i>Ilargia esnatu da</i> (Elkar, 2012)	Joxantonio Ormazabal	6 urte
	14. <i>Adio, adio</i> (Elkar, 2003)	Pello Añorga	+5 urte
	15. <i>Agur, ama!</i> (Ibaizabal, 2009)	Yolanda Arrieta	+5 urte
	16. <i>Ametsak, lo!</i> (Gero-Mensajero, 2008)	Antton Kazabon	+5 urte
	17. <i>Betiko</i> (Ttarttalo, 2005)	Alan Durant	0-4 urte
	18. <i>Ordezko lore bat amarentzat</i> (Denonartean, 2012)	Rebeka Elizegi	+5 urte
	19. <i>Korrika egin eta kontatzea</i> (Edex, 2005)	Gladys Herrera	+5 urte
	20. <i>Usoa, hegan etorritako neskatoa</i> (Erein, 1999)	Patxi Zubizarreta	+5 urte
AUTONOMIA GARATZEN	21. <i>Nire pixontzia nahi dut</i> (Hiria, 2004)	Tony Ross	+5 urte
	22. <i>Kamile sukaldean</i> (Ttarttalo, 2008)	Aline de Pétigny	+5 urte
	23. <i>Neuk egingo dut dena</i> (Ttarttalo, 1993)	Véronique Chéneau	+5 urte
	24. <i>Bainura!</i> (Kalandraka, 2011)	Taro Gomi	+5 urte
	25. <i>Txizagura</i> (Ttarttalo, 2012)	Emile Jadoul	0-4 urte
	26. <i>Gaur, bainurik ez!</i> (Ttarttalo, 2012)	Brigitte Weninger	+5 urte
	27. <i>Hori kuxidatea!</i> (Ttarttalo, 2004)	Jeanne Ashbe	0-4 urte
	28. <i>Merkatuan erosketak egiten</i> (Librifera, 1998)	HMER	0-4 urte
	29. <i>Kamile igerilekura doa</i> (Ttarttalo, 2013)	Aline de Pétigny	+5 urte

	30. <i>Begira nola hitz egiten dudan!</i> (Susaeta, 2012)	Ana Martín Larrañaga	0-4 urte
FUNTZIOAK	IZENBURUA (argitaletxea, urtea)	IDAZLEA	ADINA

EMOZIOAK LANTZEN	31. <i>Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo</i> a (Kalandraka, 2011)	Werner Holzwarth	0-4 urte
	32. <i>Joanes eta Bioletaren bihotza</i> (Elkar, 2002)	Miren Agur Meabe	+5 urte
	33. <i>Kezkamuxelak</i> (Kalandraka, 2006)	Anthony Browne	0-4 urte
	34. <i>Bubuk ez du lorik egin nahi</i> (Ibaizabal, 2006)	Cyril Hahn	0-4 urte
	35. <i>Amets gaizto nire armairuan</i> (Kalandraka, 2001)	Mercer Mayer	0-4 urte
	36. <i>Nire aitaren botak</i> (Elkar, 2013)	Mikel Valverde	+5 urte
	37. <i>Haserre nago</i> (Ibaizabal, 1994)	Brian Moses	+5 urte
	38. <i>Nola sentitzen zara?</i> (Kalandraka, 2012)	Anthony Browne	0-4 urte
	39. <i>Txominen sentimenduak</i> (Ibaizabal, 2012)	Liesbet Slegers	0-4 urte
	40. <i>Pozik</i> (Ttartalo, 2011)	Mies Van Hout	0-4 urte

MUNDUA EZAGUTZEN	41. <i>Munduko haurrak</i> (Hiria, 2003)	Nuria Roca	+5 urte
	42. <i>Marigorringoak hegan</i> (Edebé-Giltza, 1994)	Patxi Zubizarreta	+5 urte
	43. <i>Salimarentzat oparia</i> (Ibaizabal, 2008)	Iñaki Zubeldia	+5 urte
	44. <i>Nikolas</i> (Giltza, 2012)	Txabi Arnal	+5 urte
	45. <i>Maori txikia</i> (Ttarttalo, 1999)	Patricia Geis	+5 urte
	46. <i>Nire jaioterriko jendea</i> (Erein, 2005)	Bernardo Atxaga	+5 urte
	47. <i>Masai txikia</i> (Ttarttalo, 1999)	Patricia Geis	+5 urte
	48. <i>Nasrudin</i> (Ibaizabal, 2007)	Odile Weulersse	+5 urte
	49. <i>Nasrudin & Astoa</i> (Ibaizabal, 2007)	Odile Weulersse	+5 urte
	50. <i>Aisha eta tximeleta zuria</i> (Gero-Mensajero, 2006)	Belen Lucas	+5 urte
FAMILIA ETA FAMILIA MOTAK	51. <i>Kattalin eta amaren tripatxoak</i> (Ibaizabal, 2004)	Liesbet Slegers	0-4 urte
	52. <i>Amak plastakoa eman dit</i> (Aizkorri, 2004)	Ana Urkiza	+5 urte
	53. <i>Loa-loa</i> (Gero-Mensajero, 2006)	Jon Suarez	+5 urte
	54. <i>Aitorrek bi ama ditu</i> (Erein, 2004)	M ^o Jose Mendieta	6 urte
	55. <i>Itsaso marraduna</i> (A. Fortiori, 2007)	Susana Barragués Sainz	+5 urte
	56. <i>Bakarrik eta buztangabe</i> (Pamiela, 2012)	Patxi Zubizarreta	6 urte
	57. <i>Ane eta ahatetxoak</i> (A. Fortiori, 2005)	Manuel R. Lorenzo	+5 urte
	58. <i>Oso familia normala</i> (Edex, 2005)	Gladys Herrera	+5 urte
	59. <i>Aita eta ama ez daude haserre</i> (Ttarttalo, 2007)	Aline de Pétigny	+5 urte
	60. <i>Matxalen barnetegian</i> (Ibaizabal, 2008)	Pierre Le Gall	+5 urte
ESKOLA JASARPENA GAINDITZEN	61. <i>Ni ez naiz txerria</i> (Elkar, 2003)	Pello Añorga	+5 urte
	62. <i>Jon txapeldun</i> (Hiria, 2005)	Anthony Browne	0-4 urte
	63. <i>Jon eta Beñat</i> (Hiria, 2005)	Anthony Browne	0-4 urte
	64. <i>Tximeleta belarriak</i> (Kalandraka, 2011)	Luisa Aguilar	0-4 urte
	65. <i>Hannoren herensugetxoak</i> (S.M., 1988)	Irina Korschunow	+5 urte
	66. <i>Hiru txerriren txerrikeriak</i> (Ttarttalo, 2005)	Mario Ramos	+5 urte
	67. <i>Ostiraletako opila</i> (Elkarlanean, 1998)	Patxi Zubizarreta	+5 urte
	68. <i>Hurbil</i> (Kalandraka, 2008)	Natalia Colombo	0-4 urte
	69. <i>Rino lotsatia</i> (Timun Mas, 1992)	Marilyn Talbot	+5 urte
	70. <i>Ahatetxo itsusia</i> (Gero-Mensajero, 2004)	Hans Christian Andersen	0-4 urte
IRUDIMENA GARATZEKO	71. <i>Bota ura!</i> (Edebé-Giltza, 1997)	Juan Kruz Igerabide	+5 urte
	72. <i>Afrika eta koloreak</i> (Ttarttalo, 2003)	Anna Obiols	+5 urte
	73. <i>Zaldi urdin bat margotu zuen artista</i> (Kalandraka, 2012)	Eric Carle	0-4 urte
	74. <i>Elmer</i> (Erein, 2012)	David Mckee	3-6 urte
	75. <i>Katuntxia</i> (Ibaizabal, 2013)	Guido Van Genetchen	0-4 urte
	76. <i>Urdin txiki hori txiki</i> (Pamiela, 2013)	Leo Lionni	0-4 urte
	77. <i>Liburu bat</i> (Ttarttalo, 2012)	Herve Tullet	+5 urte

	78. <i>Jonen lanbideak</i> (Kalandraka, 2002)	Antonio Rubio	+5 urte
	79. <i>Kintxo xikintxo</i> (Kalandraka, 2002)	Kiko Da Silva	0-4 urte
	80. <i>Patxiku</i> (Kalandraka, 2001)	Paula Carballeira	0-4 urte

FUNTZIOAK	IZENBURUA (argitaletxea, urtea)	IDAZLEA	ADINA
ANIMALIAK	81. <i>Gabon hontza</i> (Pamiela, 2013)	Pat Hutchins	0-4 urte
	82. <i>Tatsu Nagataren piztia handiak</i> (Ttarttalo, 2013)	Thierry Dedieu	+5 urte
	83. <i>Lokatzetan</i> (Ibaizabal, 2003)	Marjolijn Hof	0-4 urte
	84. <i>Kattalin eta animalien liburu handia</i> (Ibaizabal, 2013)	Liesbet Slegers	0-4 urte
	85. <i>Sararen basoa</i> (Ibaizabal, 2002)	Emilio Urberuaga	+5 urte
	86. <i>Animalien kumeak</i> (Ttarttalo, 2013)	Delphine Gravier	0-4 urte
	87. <i>Ikusi-makusi baserrian</i> (Ttarttalo, 2009)	Martine Perrin	0-4 urte
	88. <i>Animalien abenturak</i> (Ttarttalo, 1994)	Jordi Fenosa	+5 urte
	89. <i>Tito eta Kito basoan</i> (Ttarttalo, 2002)	Carmen Busquets	0-4 urte
	90. <i>Mikela oihanean</i> (Ibaizabal, 2001)	Merce Aranega	+5 urte
BIZITZAKO BALOREAK BARNERATZEN	91. <i>Augustoren botila</i> (Giltza, 2013)	Pello Añorga	+5 urte
	92. <i>Bihotz-bihotzetik</i> (Ibaizabal, 2012)	Emile Jadoul	0-4 urte
	93. <i>Altxor bat aurkituko dugu</i> (Kalandraka, 2013)	Janosch	+5 urte
	94. <i>Untxitxo txuria</i> (Kalandraka, 2000)	Xosé Ballesteros	+5 urte
	95. <i>Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan</i> (Kókinos, 2007)	Sam McBratney	+5 urte
	96. <i>Animalia guztiak ez dira urdinak</i> (Ttarttalo, 2008)	Beátrice Boutignon	+5 urte
	97. <i>Lagunen eskua</i> (Edex, 2005)	Gladys Herrera	+5 urte
	98. <i>Urdaburutarrak</i> (Kalandraka, 2006)	Anthony Browne	+5 urte
	99. <i>Beti aurrera!</i> (Ttarttalo, 2002)	G. Berca	+5 urte
	100. <i>Indarra elkartasunean dago</i> (Ibaizabal, 2008)	Victoria Pérez	+5 urte

(ikus literatur testuen laburpenak 5. eranskinan)

6. Ondorioak

Lan honi amaiera emateko, berau egin ondoren ateratako ondorioak zeintzuk izan diren aipatuko dira jarraian. Ondoriozta genezake, hartaz; alde batetik, irakurketaren eta haur literaturaren garrantzia ezinbestekoa dela haurren garapenerako nahiz lortu beharreko gaitasun orokorrak gauzatzeko, marko teorikoan eskainitako irakurketa bibliografikoak medio, eta bestetik, irakurketa plazerrarekin lotzea nahitaezkoa dela umeak irakurketaren bidea abiatu eta gara dezan, literatura bibliografikoari kasu emanaz.

Ildo beretik, inbentario hau hasiera batetik guraso, zein irakasleei zuzenduta egon da, beraiei orientatzeko eta beraientzat gida moduko bat izateko helburuarekin. Horretarako, irakasleak haurrak literatura munduan barneratzeko dituzten posibilitate anitzak eta gurasoek euren aldetik egin ditzaketen ekarpen positiboak azpimarratu dira. Era berean, gurasoen laguntzaz baliatuz eta herriaren parte hartzea lortu nahian, herriko liburutegiaren ekarpena bilatuko da, denen artean kalitatezko literatur testuak lortzeko, hau da, benetako material bilduma bat osatzeko. Helburu horien ondorio zuzenak dira egin den literatur testu bilduma, gida eta jarraitu beharreko hautatze irizpideak.

Azkenik, haurrak literatura munduan murgiltzeko irizpide ugari eman dira. Horien artean, ikastetxean haurrei zuzendutako liburutegi bat edukitzea eta haurrak bertara gerturatzea, umeak herriko liburutegira eramatea, gurasoei euren etxean literatur testuz betetako gunek bat sortzeko gonbita luzatzea, ipuin tailerrak sortzea, ipuin kontaketak egunerokotasunaren barne egotea, beste jarduera askoren artean. Horien ondorio nagusiak dira eskolak, familiarekin nahiz herri erakundeekin egin beharrekoak denen artean irakurketa zaletasuna sustatu eta eskolan Haur Liburutegia martxan jartzeko. Izan ere, irakurzaletasuna, txiki txikitatik landu beharrekoa da, etxetik nahiz jendartetik eta gerora eskolarena izango da irakurketa gaitasuna bermatzea. Eta horretarako, hain zuzen ere, Liburutegi bat Haur Hezkuntzan martxan jartzearen eta Mende baterako Ehun liburuen proposamena.

Bibliografia

- Alustiza, M.J.O. (1999). Galtzagorri elkarte, euskarazko haur eta gazte literatura sustatzeko ahaleaginean. *Behinola: haur eta gazte literatura aldizkaria*, (1), 9-10.
- Añorga, A. (2009). Pello Añorga. *Behinola aldizkaria*. 6, 16.
- Barrientos, C. (1982). *Libro-fórum: una técnica de animación a la lectura*. Madril: Narcea.
- Bettelheim, B. (1977). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Bartzelona: Editorial Planeta S.A.
- Bonnafé, M. (2008). *Los libros, eso es bueno para los bebés*. México: Océano Travesía.
- Bortolussi, M. (1985). *Análisis teórico del cuento infantil*. Madril: Alhambra
- Bosch de Pais, G.A., Coronel, R.E. eta Leiva de Mendizabal, L.E. (2002). *Estrategias de lectura*. 2014ko Apirilaren 5ean berreskuratuta. <http://www.editorial.unca.edu.ar/orrialdetik>.
- Calvo, B. (1999). Animación a la lectura. *Educación y Biblioteca aldizkaria*, 100, 5-7.
- Cerrillo, P. C. (2007). *La literatura infantil y juvenil y educación literaria. Hacia una nueva enseñanza de la Literatura*. Bartzelona: Octaedro.
- Cervera, J. (1991). *Teoría de la literatura infantil*. Bilbao: Mensajero-Universidad de Deusto.
- Colomer, T. (2005). *Siete llaves para valorar las historias infantiles*. España: Fundación German Sanchez Ruiperez.

- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Editorial Síntesis, S.A.
- Colomer, T. eta Camps, A. (1996). *Enseñar a leer, enseñar a comprender*. Madrid: Celeste MEC.
- Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Fernandez, A. (1999). Hitzak sorgin. *Behinola aldizkaria*, 27, 27-33.
- Figueres, C. eta Pujol, M.A. (2006). *Propuestas de aprendizaje: leer y escribir en edades tempranas*. Bartzelona: CEAC.
- Fons, M. (2004). *Leer y escribir para vivir: alfabetización inicial y uso real de la lengua escrita en la escuela*. Bartzelona: Grao.
- Hervas Anguita, E. (2008). Importancia de la lectura en la educación infantil. *Inovación y experiencias educativas aldizkaria*, 7, 3.
- Hunt, P. (1991). *Criticism, Theory & Children's Literatura*. Oxford: Blackwell Publishers.
- Irusta, A. (2010). Ipuinekin hausnartzen. *Behinola aldizkaria*, 8, 21-23.
- Landa, M. (2011). Neskatilak, gehiengoa edo gutxiengoa. *Behinola aldizkaria*, 9, 27-33.
- Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes. Los comités de valoración en las bibliotecas escolares y públicas*. Gijón, Asturias: Ediciones Trea, S.L.
- Marzal, M. A. (1991). *La biblioteca de centro y la biblioteca de aula*. Madrid: Castalia/ MEC.
- Mata, J. (2008). 10 ideas clave: *Animación a la lectura. Hacer de la lectura una práctica feliz, transcendente y deseable*. Bartzelona: Grao.
- Montserrat, B. eta Montserrat, C. (2001). *Didáctica de la lengua en educación infantil*. Madrid: Editorial Síntesis, S.A.

- Moreno, V. (2000). *Lectura, libros y animación. Reflexiones y propuestas*. Nafarroa. Departamento de Educación y Cultura, Gobierno de Navarra.
- Olid Báez, I. (2013). ¿Por qué una tesis sobre la muerte? Entrevista con Txabi Arnal Gil. *Bellaterra Journal of Teaching & Literature Language & Literature*, 6 (1), 72-80.
- Peña Muñoz, M. (1994). *Alas para la infancia*. Santiago de Chile: Editorial Universitaria.
- Quintanal, J. (2000). *Animación a la lectura*. Madril: CCS.
- Ripoll, M.F. (2003). Reflexiones sobre la animación a la lectura. *Primeras Noticias aldizkaria*, 192, 21-24
- Rodari, G. (2004). La imaginación en la literatura infantil. *Perspectiva Escolar aldizkaria*, 43, 1-6.
- Rueda, R. (2005): *La biblioteca de aula infantil: El cuento y la poesía*. Madril: Narcea.
- Sarto, M. (2000). De dónde viene y a dónde va la animación a la lectura. *Educación y futuro aldizkaria*, 2, 45-51.
- Smith, F. (1983). *Comprensión de la lectura*. Mexiko: Aprendizaje Visor.
- Smith, F. (1990). *Para darle sentido a la lectura*. Madrid: Aprendizaje Visor.
- Solé, I. (1992). *Estrategias de lectura*. Bartzelona: Grao.
- Tejerina, I. (1994). *Dramatización y teatro infantil*. Madril: Siglo XXI.
- Yore, L, Craig, M. eta Maguire, T. (1998). Index of science reading awareness: an interactive constructive model, test verification, and grades 4-8 results. *Journal of research in Science Teaching*, 35 (1), 27

ERANSKINAK

14.3. FICHA DE VALORACIÓN DE LIBROS LITERARIOS

FICHA DE VALORACIÓN DE LIBROS LITERARIOS		
Título	Lengua y país de origen	
Autor	Nacionalidad	
Ilustrador	Traductor	
Editorial	Ciudad	
Colección	Edad	
Fecha de edición original	Fecha de edición en español	
<p>A continuación, señale con un × los criterios que se pueden aplicar al libro que valora: estos elementos son una ayuda para elaborar un comentario crítico.</p>		
El tema y su tratamiento	Conmueve, divierte e interesa al lector.	
	Es verosímil y creíble.	
	Es innovador.	
	Es evocador y suscita reflexiones.	
	Ofrece diferentes perspectivas.	
	Evita aleccionar.	
El lenguaje	Es comprensible.	
	Crea imágenes únicas y perdurables.	
	Suscita emociones y sentimientos.	
	Crea un universo de ficción coherente.	
	Cuenta entre líneas.	
	Crea juegos ingeniosos y significativos, basados en la rima, el ritmo y la musicalidad de las palabras.	
Se adecúa a la edad del lector.		
La estructura	La secuencia narrativa es coherente.	
	La situación inicial genera expectativa.	
	Imprime tensión al relato.	
	Los relatos plantean uno o varios conflictos que invitan a continuar con la lectura.	
	El final de los relatos es convincente y contribuye a que el lector continúe habitando el texto.	
El narrador	Guía al lector en el universo narrativo.	
	Conserva su perspectiva narrativa a lo largo del relato: protagonista, observador, omnisciente.	
	Tiene una voz y un tono personales y se diferencia de los personajes. Su narración es coherente.	
	Si hay varias voces narrativas, todas aportan a la construcción del relato.	

FICHA DE VALORACIÓN DE LIBROS LITERARIOS

Los personajes	Tienen definidos atributos psicológicos y físicos.	
	Son auténticos: los niños y adultos actúan y piensan como lo que son.	
	Representan parámetros sociales y culturales del contexto del relato.	
	Presentan ambigüedades, sombras y dudas en su forma de actuar.	
	Se transforman a lo largo del relato.	
	Generan empatía.	
La época	Permite reconocer en qué etapas de la vida de los personajes transcurre el relato.	
	Se refleja en el comportamiento y las acciones de los personajes.	
	Se infiere de los textos.	
El tiempo	Permite seguir la cadena de acontecimientos.	
	Permite percibir el paso de las horas, los días, los años...	
	Marca el ritmo y la intensidad del texto.	
El espacio	Ubica al lector en los escenarios en los que transcurre la historia.	
	Influye en las actitudes y decisiones de los personajes.	
	Contribuye a crear la atmósfera del relato, a reforzar sensaciones y situaciones.	
Las ilustraciones	Son atractivas, transmiten sensaciones y suscitan emociones y reflexión.	
	Dialogan con el texto, recreándolo o contrastándolo.	
	Presentan elementos que añaden sorpresa o humor a la narración.	
	Captan la esencia de un lugar o de una época.	
	Refuerzan la noción de tiempo.	
	Crean personajes expresivos, con características únicas y convincentes.	
	Crean un universo narrativo coherente.	
	Integran armónicamente las figuras, el manejo del espacio y el color.	
	Hay una relación verosímil entre las proporciones, los volúmenes y las formas de los objetos.	
	La perspectiva ubica al lector en un lugar privilegiado para mirar y acentúa momentos claves del relato.	
	Los colores enfatizan las emociones del relato.	
	Los trazos transmiten la intención narrativa: ironizar, divertir, conmover, evocar...	
La técnica enriquece el conjunto y es consistente a lo largo del libro.		
El diseño y la impresión	La cubierta atrae.	
	La cubierta da la información básica sobre la obra: título, autor, ilustrador, editorial.	
	La contracubierta genera curiosidad y deseo de leer la obra.	
	Las guardas sugieren el contenido del libro y generan expectativa.	
	El formato colabora con la construcción de la historia.	
	La diagramación equilibra los elementos gráficos y textuales.	
	El papel realza los elementos gráficos del libro.	
	La impresión realza los colores, diferencia las tonalidades y presenta una tipografía nítida.	
La encuadernación es resistente.		

FICHA DE VALORACIÓN DE LIBROS LITERARIOS					
La edición	Prólogos, glosarios, pies de página son pertinentes.				
	Las versiones o adaptaciones conservan lo esencial de los textos originales.				
	Las versiones, adaptaciones y antologías dan referencia de los textos originales.				
	La traducción recrea el sentido de la obra original, así como el ritmo y la fuerza de su lenguaje.				
	La página legal presenta los datos sobre: derechos de autor, registro en el ISBN, impresión.				
Libros para bebés	Invita a los juegos corporales y a descubrir personajes escondidos, procesos, trayectorias.				
	Narra una historia.				
	Representa y propicia los vínculos afectivos.				
	Representa elementos y situaciones cotidianas.				
	Es llamativo y breve, retiene la atención del bebé y suscita la conversación.				
	Estimula los sentidos.				
	Permite inferir conceptos y establecer relaciones con sus experiencias.				
	Parte de preguntas genuinas de los niños.				
	Las ilustraciones tienen formas básicas, pocos detalles y se destacan sobre fondos planos.				
	Está hecho de material resistente y no tóxico.				
Edad:	Prioridad	Recomienda el libro:			
	Excelente	Muy bueno	Bueno	Sí	No
Comentario crítico del evaluador: A partir de los criterios anteriores, valore la calidad del libro. ¿Qué es lo que tiene de especial el libro?, ¿por qué impacta?, ¿a quién lo puedo recomendar?					
Valorado por:					
Fecha de valoración:					

LIBURUEN LABURPENAK

1. *Puf! Hau Nazka!* (Elkar, 1997)

Ipuin honetako protagonistak arreba txiki bat dauka eta egun batean biak bakarrik geratzen dira etxean. Mutikoak arreba zaindu behar du eta momentu batean txikitxoak kaka egiten du eta bere anaiak fardela aldatuko dio, nahiz eta hasiera batean nazka pittin bat eman.

2. *Marixorren deskuidoak* (Erein, 1992)

Marixorrek sei anai nagusi ditu, bera gazteena delarik. Marixorrek lan ezberdinak egin behar dizkie anaiei, baita aitari ere. Lan horien artean daude, ohea egitea, etxeko lanak egitea, zapatak garbitzea, egunkaria erostea ... Baina bere urtebetetzea iristen denean egoera aldatu egiten da, zenbait deskuidoren ondorioz. Hortik aurrera, ez dizkie lan gehiagorik egin behar izango.

3. *Arratsalde euritsua* (Elkar, 1987)

Arratsalde euritsua da eta bi txakurkumeak asperturik daude. Orduan aitak bi aukera ematen dizkie. Lehenengoa, etxeko ganbarara joatea eta bigarrena, ondo prestatu eta kalera irtetea. Biek ondo pasatzeko aukera eskaintzen dute.

4. *Ada ez da inoiz beldurtzen* (S.M., 1992)

Adari izebak beti honelako gauzak esaten dizkio: "Ez baduzu jaten mamua etorriko da, ez baduzu lo egiten mamua leihotik sartuko zaizu ...". Adak badaki mamurik ez dagoela, neska ausarta baita, baina izebak oraindik ez daki hori.

5. *Mari Joseri zergatik deitzen diote Jose Mari?* (Elkar, 1997)

Mari Josek hiru anai nagusi ditu eta beraiekin futboleko jolastea gustatzen zaio. Ez zaizkio amak erosten dizkion txarolezko zapatak gustatzen, ezta buruan lazoak janztea ere. Belarritakoak ere ez ditu erabiltzen eta handitan suhiltzailea izan nahi du, baina, denek mutiltzat hartzen badute ere, neska izaten jarraitzen du.

6. *Eta handia egiten naizenean zer?* (Elkar, 1988)

Liburu honetako protagonistak handitzean izango denarekin egiten du amets, ileapaintzailea, mekanikaria, futbolaria, okina, sorgina ... Sorgina izango dela amesten duenean sorginak entzun egiten dio eta aitortzen dio ez duela handia izan arte itxaron behar, nahi duena izan daitekeela orain ere. Hau jakinda, umea sorginez mozorrotzen da, futboleko jolasten du

7. *Antton eta neskak* (Alberdania, 2008)

Anttonek pila bat jostailu ditu baina neskek ez diote jaramonik egiten, ez dute berarekin jolastu nahi. Etxe bat eraikitzen du nesken atentzioa deitzeko, neskek, ordea, kasurik egin gabe jarraitzen dute. Egun batean, neskengana hurbiltzen da Antton eta beraiekin jolasten hasten da. Antton pozik dago.

8. *Txanogorritxu eta otso beltzu* (Ttarttalo, 2005)

Txanogorritxu amatxiren etxera joan behar du janaria eramatera, hau gaixorik baitago. Baina, ehiza garaia denez, ehiztariak ez dio pasatzen usten. Txanogorritxu basoan galdu da, otso beltzurekin topo egiten duen arte. Otsoak amatxiren etxera eramango du. Ondoren ehiztaria etorriko da otsoaren hiltzera, baina lagunak izaten amaituko dute.

9. *Arrosa eta leuna* (Pamiela, 2013)

Elefanteen herrialdean bazen elefante saldo berezi bat. Elefante emeek janari berezia jan behar zuten arrosa eta begi distiratsuak izateko. Janari hori, lorategi itxi batean besterik ez zegoen eta ezin izaten zuten bertatik irten. Ez bazuten janari hori jaten, denek esaten zuten ez zirela inoiz ezkonduko ezta mutil lagunik aurkituko ere. Hala ere, bazegoen elefante bat ez zena arrosa bihurtzen eta honek hezitik ihes egin zuen. Poliki-poliki elefante guztiak hezitik irteten hasi ziren eta denak bihurtu ziren grisak, denak berdinak.

10. *Pinto oilarraren ezteiak* (Txalaparta, 2011)

Pinto oilarrak Juliana neskatoarekin ezkondu nahi zuen eta hura konbentzitzeko hitz politak erabiltzen zituen. Baina ez zuen benetan maite, bere lanak egiteko bakarrik nahi zuen, hau da, neskame gisa ikusten zuen. Azeria, ordea, neskatoaz maiteminduta zegoen eta begiak zabaltzeko bidea erakutsi zion.

11. *Kili-kiliak* (Bellaterra, 2012)

Liburu honen bidez, sexualitateak gure bizitzaren aro ezberdinetan zehar laguntzen digun zerbait dela ikas dezakegu. Gure buruari buruz ikasteko iturria da eta baita esperientzia baliogarriez beteriko arloa ere. Askotan sexualitateari buruz hitz egitea zaila da, eta horretan laguntzeko baliagarria izan daiteke liburu hau.

12. *Berta* (Sirpus, 2002)

Bertak minbizia dauka eta ilerik gabe geratu da tratamenduaren ondorioz. Neskatoa ez dago gustura bere itxurarekin, baina bere familiak eta gertuko pertsonak egoera beste era batera ikusten lagunduko diote.

13. *Ilargia esnatu da* (Elkar, 2012)

Unairen amona hilda dago eta hura nolakoa zen jakin nahi du eta amari galdetzen dio jakinmin handia duelako. Askotan heriotzaz hitz egitea zaila izaten da eta egoera hau islatzen da, hain zuzen ere, liburu honetan.

14. *Adio, adio* (Elkar, 2003)

Ramuntxo eta bere ama auto istripu batean hiltzen dira. Bere aita oso triste geratuko da, baina aurrera egiteko bidea aurkituko du.

15. *Agur, ama!* (Ibaizabal, 2009)

Andre batek ezin du umerik eduki eta basoko andereak hazi bat zaintzeko esaten dio, hortik bere alaba jaioko baita; lorea. Andreak asko zaintzen du lorea, baina hil egiten da eta loreak bakarrik ekin beharko dio bere bideari.

16. *Ametsak, lo!* (Gero-Mensajero, 2008)

Mutiko hau aspertuta dago betiko istorioak entzuteaz, bere aitaren istorioa entzun nahi du. Bere aita non dagoen eta zergatik joan zen jakin nahi du. Amari asko kostatuko zaio kontatzea, baina semearen laguntzarekin lortuko du.

17. *Betiko* (Ttarttalo, 2005)

Igaraba, satorra, erbia eta azeria elkarrekin bizi ziren poz-pozik. Igarabak janaria prestatzen zuen, satorrak etxeko konponketak egiten zituen, erbiak baratzeko lanak eta azeria etxeko arduradun nagusia zen. Egun batean, azeria gaixotu egin zen eta basora

joan zen eta ez zen gehiago itzuli, hil egin zen. Momentu hartatik aurrera, tristura besterik ez zen nabarmentzen etxe hartan. Baina, denboraren poderioz aurrera egiteko modua topatu zuten.

18. *Ordezko lore bat amarentzat* (Denonartean, 2012)

Protagonista den neskato honen amari, mantxatxo itsusi bat antzeman zioten bular batean. Hau da, bularreko minbizia du bere amak eta haurrak berarekin bizi beharko du prozesu sail hori. Haurra oso ausarta izango da eta amarekin batera biziko du gaixotasun horri aurre egiteko abentura. Elkarrekin gaixotasuna gainditu eta eguneroko bizimodu arruntera itzuliko dira.

19. *Korrika egin eta kontatzea* (Edex, 2005)

Neskato honek, eskolatik bueltan autobusa hartu zuen. Autobusean, gizon bat eseri zitzaion ondoan eta hanka ukitzen hasi zitzaion, ondoren ipurdia, neska autobusetik korrika eta negarrez irten zen. Etxera iritsitakoan amari kontatu zion guztia.

20. *Usoa, hegan etorritako neskatoa* (Erein, 1999)

Kukua, Afrikatik etortzen den hegazti migratzaile baten izena da. Kasai, Afrikatik etorri zen neskatile maitagarri baten izena da. Kukuaren antzera, Kasai hegan etorri zen. Afrikatik hegazkin batean bidali zuten. Horrexegatik hemen denek Usoa esaten diote, hegan etorritako neskatoa. Eta aurtengo udaberrian ere kukua Afrikatik etorri da: ku-ku, ku-ku! Txanponak sakeletan, haur guztiak

pozaren pozez dabilta. Baina Usoa serio jarri da, eta urduri, eta kopetilun... ez zaio gustatu andereñoak esandakoa. Usoak bi ama ditu; hemengoa eta Afrikan bizi dena, biak maite ditu.

21. *Nire pisontzia nahi dut* (Hiria, 2004)

Printzesak fardela utzi eta pisontzia erabiltzen hasten da. Hasiera batean, ez du batere gogoko, baina poliki-poliki ohitzen joango da eta berarekin jolasten amaituko du.

22. *Kamile sukaldean* (Tarttalo, 2008)

Gaur Kamileren amaren urtebetetzea da eta txikitxoak aitaren laguntzaz tarta bat egitea pentsatu du. Aitak egin beharreko guztia azalduko dio eta bien artean tarta goxo bat prestatuko dute amarentzat.

23. *Neuk egingo dut dena* (Ttarttalo, 1993)

Asierren ama gaixotu egin da eta aita eta biak egin beharko dituzte lan guztiak. Asier bakarrik jantzi da, aitari erosketa zerrenda egiten lagunduko dio, baita bazkaria ere. Horrez gain, etxea garbitzen du.

24. *Bainura!* (Kalandraka, 2011)

Ipuineko protagonistari nagikeria ematen dio bainatu behar izateak, batez ere jolasari utzi behar izateagatik. Baina bainua ere dibertigarria izan daiteke eta haurrak autonomia gehiago har dezake.

25. *Txizagura* (Ttarttalo, 2012)

Lontxo gauean esnatu egiten da txizagura etortzen baitzaio, orduan ama edo aita esnatzen du komunera joateko. Ama eta aitak Lontxori aitortzen diote, nekatuta amaitzen dutela, ordu horietan esnatuz gero. Hemendik aurrera, txikitxoak komunera bakarrik joaten ikasiko du.

26. *Gaur, bainurik ez!* (Ttarttalo, 2012)

Miko gaur kaletik zikin-zikin eginda etorri da, amak bainatzeko esan dionean Mikok ezetz esan dio eta ezkutatu egin da. Ondoren berriro esango dio amak bainatzeko, baina Mikok berearekin jarraituko du. Oheratzerakoan, Miko harez beteta dagoenez ezin du lorik hartu eta bera bakarrik joango da bainatzera.

27. *Hori kuxidadea!* (Ttarttalo, 2004)

Jateko egin beharreko guztiak egingo ditu Fermin haurrak: baberoa ipini, jan eta ondoren eskuak eta aurpegia garbitu. Hau dena, berak bakarrik egingo du, autonomia osoz.

28. *Merkatuan erosketak egiten* (Librifera, 1998)

Gaur merkatu eguna da eta Jurgik eta Aitorrek azoka bisitatu nahi dute. Bertan behar duten guztia erosiko dute.

29. *Kamile igerilekura doa* (Ttartalo, 2013)

Gaur Kamile igerilekura joan da gurasoekin. Bertan bainujantzia jantzi ondoren, igerilekurantz abiatu dira. Kamilek hasieran, beldurra dauka uretan sartzeko, baina minutu batzuk pasa ondoren bera bakarrik arituko da igerian eta asko disfrutatuko du.

30. *Begira nola hitz egiten dudan* (Susana, 2012)

Haur baten lehenengo hitzak, soinuak zeintzuk diren azaltzen dizkigu liburu honek: nirea, ñam-ñam, zaunka, gozo-gozo ...

31. *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo* (Kalandraka, 2011)

Liburuko honetako protagonista satortxo bat da eta norbaitek buruan kaka egin dio, nork egin dion jakin nahian animala ezberdinekin egingo du topo. Azkenean, txakur batek egin diola jakingo du eta ekintza berbera bueltatuko dio.

32. *Jonas eta Bioletaren bihotza* (Elkar, 2002)

Jonasek panpin bat dauka, Bioleta izena duena. Bioletari tripan sakatu ezker kantuan hasten da eta Jonasek eta bere familiak dantzan egiten dute musikarekin batera. Egun batean, Bioletak kantatzeari utziko dio eta triste-triste jarriko da Jonas. Askok pentsatu ondoren, aitona arazo konpontzeko irtenbidea bilatuko du, pila berri bat jartzea, alegia. Denak poz-pozik jarriko dira.

33. *Kezkamuxelak* (Kalandraka, 2006)

Ibai kezkatuta bizi da, gauza guztiengatik kezkatzen da txikitxo. Amonak orduan kezkamuxelak oparitzen dizkio. Kezkamuxelak panpinatxo txikiak dira eta Ibaik bere kezka guztiak kezkamuxelei kontatu ezker, lasai egiten du lo.

34. *Bubuk ez du lorik egin nahi* (Ibaizabal, 2006)

Bubuk ez du lorik egin nahi, bere lagunekin jolastu nahi du. Baina, bere lagunek ez dute jolastu nahi eta triste dago.

35. *Amets gaizto nire armairuan* (Kalandraka, 2001)

Mutiko honek amets gaizto bat zuen armairuan eta ohera joan baino lehen armairua ixten zuen, beldur baitzen. Egun batean amets gaiztoari aurre egitea erabaki zuen eta lagun minak izaten amaitu zuten. Orain amets gaiztoak mutikoarekin egiten du lo.

36. *Nire aitaren botak* (Elkar, 2013)

Ipuin honetako protagonista Koldo da. Gaur egun euritsua da eta Koldok bere oinetakoak jantzi beharrean, aitarenak hartzen ditu, berak bufalo batzuekin alderatzen dituelarik. Bazkaltzera joaten direnean, mutikoak ezin izango du jan nahi duena, aitaren zapatek agintzen baitute eta hauek nahi duten tokira eramango dute. Koldo haserretu egingo da egoerarekin, baita beldurtu ere. Etxera iristerakoan, berehala aitaren botak kenduko ditu eta izugarritzko lasaitasuna eta poztasuna sentituko du.

37. *Haserre nago* (Ibaizabal, 1994)

Liburu honetan, haurra haserre sentitzen denean ematen diren jarrera aldaketak deskribatuko dira, berak zer sentitzen duen adieraziz.

38. *Nola sentitzen zara?* (Kalandraka, 2012)

Sentimendu ezberdinetan barneratzen gaituen liburu sinplea da honako hau. Egoeraren eta egunaren arabera, sentimendu bat edukiko duelarik.

39. *Txominen sentimenduak* (Ibaizabal, 2012)

Txominek zer sentitzen duen erakusten digu. Haserre, triste edo izututa dagoenean, laguntzea edo kontsolatzea behar izaten du. Eta pozik dagoenean, gaur, adibidez, edonori esango lioke.

40. *Pozik* (Ttarttalo, 2011)

Liburu honetan murgildu ahala, arraintxoek jakinmina izatetik triste izatera pasatuko dira, baita ausart, lotsati, haserre eta azkenik, zoriontsu izatera. Beraz, sentimendu ezberdinak sentitzeko aukera eskaintzen digu.

41. *Munduko haurrak* (Hiria, 2003)

Ipuin honetan mundu guztian zehar bizi diren pertsonak agertzen dira, beraien ohiturak nolakoak diren azalduz. Denak dira fisikoki ezberdinak, baina denak dira berdinak, aldi berean, denak baitira pertsonak.

42. *Marigorringoak hegan* (Edebé-Giltza, 1994)

Aurtengo udan lehortea dago, zeruari euria egitea ahaztu zaio. Egoera hau egunero Afrikako umeez bizi duten berdina da. Liburu honetako protagonista arratsaldero joaten da marigorringoen bila, euria egingo duen ala ez galdetzeko. Beste ekintza anitz ere egingo ditu euria egingo duelakoaren ustetan.

43. *Salimarentzat oparia* (Ibaizabal, 2008)

Salima berria da herria honetan eta gaur olentzeroren eguna da. Salima kezkatu dago, olentzeroren oparirik jasoko ez duelako ustea baitauka. Denek esaten diote olentzero haur guztien laguna dela eta ziur opariren bat eroriko zaiola, baina neskatoak kezkatu jarraitzen du. Hurrengo egunean, opari bat izateaz gain, olentzerok ohar bat utziko dio. Salima asko poztuko da.

44. *Nikolas* (Giltza, 2012)

Nikolas mutil afrikarra da, oso altua eta atletikoa. Duela hilabete batzuk bere herrialdea utzi zuen, guregana etortzeko. Benetako igerilaria dirudien arren, ez daki igeri egiten. Hala ere, bizi izandako esperientziengatik benetako heroia dela esan daiteke.

45. *Maori txikia* (Ttarttalo, 1999)

Maori txikia Zelanda Berrian bizi da. Egunero kanoan joan behar du muskuiluak biltzera, jan ahal izateko. Egun batean, kanoa muskuilu askoz bete zuen eta kaio batek laguntza eskatu zionean, makil batzuk eramateko ez zion lagundu. Beranduago, berak laguntza beharko zuen eta kaioek hasieran lagundu ez arren, azkenean lagundu zioten. Ondoren, lagun minak izaten amaitu zuten.

46. *Nire jaioterriko jendea* (Erein, 2005)

Herri honetan bada gizon bat turbantea daramana buruan. Umeak horren zergatia jakiteko irrikan daude, baina berari galdetzeko beldurra dute. Egun batean, euren jakinminak bultzaturik bere etxera joango dira galdezka. Pedrok Indian bizitako esperientzia kontatuko die eta baita turbantea buruan eramatearen arrazoia ere.

47. *Masai txikia* (Ttartalo, 1999)

Masai txikia Tanzanian bizi da. Egun batean paseo bat ematera joan zen eta jostun batekin egin zuen topo. Hau, elefante eta errinozeronteen bila zebilen, euren letagin eta adarretan interesatua, bitxiak eta beste hainbat gauza egiteko. Masai txikiak bere intentzioak zeintzuk ziren jakin ondoren, bertan ez zeudela horrelako animaliarik esan zion. Jostunak orduan alde egin zuen.

48. *Nasrudin* (Ibaizabal, 2007)

Nasrudinek bere aitari azokara laguntzen dio, aita asto gainean joaten da eta bera astoaren atzetik. Azokara iristen beti egoten da norbait barre egiten diona, horregatik azokara iritsi bezain pronto joan egiten da. Denborarekin ikasiko du jendeak dioen guztiari ez zaiola kasurik egin behar eta bere iritzia propioa edukitzea garrantzitsua dela.

49. *Nasrudin & Astoa* (Ibaizabal, 2007)

Nasrudin txikia da oraindik, baina gurasoei asko laguntzen die. Egun batean, aitak orkatila bihurritu zuelako azokara bakarrik joan behar izan zuen. Behar zuena saldu eta erosi zuen, baina bueltatzerako momentuan jada ez zegoen astoa bere tokian, astoa lapurtu zioten. Hala ere, Nasrudinek burutazio bikain bat izan zuen, asto gainean etxera itzultzea lortu zuen.

50. *Aisha eta tximeleta zuria* (Gero-Mensajero, 2006)

Tximeleta zuriaren bisita jasotzen duen hiria oso handia da eta jende asko bizi da bertan. Haraino iritsi ziren Aisharen gurasoak eta amona ere, oso urrun dagoen herrialde batetik. Hiriko beste jende guztiak bestelako ohiturak ditu, Aisharen familia oraindik ez baita asko egokitu bizileku berrira. Uda da, eta hiriko hurrek kalean jolasten dute, beren amek etxera deitzen dieten arte. Aishak, ordea, leihotik ikusten ditu besteen jolasak, haiekin ibiltzeko irrikaz badago ere. Baina egoera aldatuz joango da, lagun berriak egingo ditu.

51. *Kattalin eta amaren tripatxoa* (Ibaizabal, 2004)

Kattalin oso pozik dago bere amak ume bat izango duelako. Haurdunaldi prozesua nola bizi duen azalduko digu Kattalinek. Umea jaiotzen denean Kattalin hura ikustera joango da poz-pozik, haurra mutila izango da.

52. *Amak plastakoa eman dit* (Aizkorri, 2004)

Amak bere alabari plastakoa eman dio eta alabak ez daki zergatik, galduta sentitzen da. Pertsona ezberdini galdetu ondoren, berdin jarraitzen du neskatoak. Aita bidaiatik itzultzen denean, ama negarrez hasten da aste guztia lanean daramalako eta bere seme-alabekin ez delako ondo portatu. Ondoren, amak bere seme-alabei zenbat maite dien gogorazi die.

53. *Loa-loa* (Gero-Mensajero, 2006)

Liburu honetako protagonistaren aita eta ama oso nekatuta iristen dira lanetik, guraso langileak baitira. Etxera iristerakoan neskatoak asko laguntzen die.

54. *Aitorrek bi ama ditu* (Erein, 2004)

Aitorrek bi ama ditu. Gure gizartean gero eta normalagoa den egoera bat kontatzen da istorio honetan. Ume honek aita eta ama eduki beharrean, bi ama ditu eta horrek herri txiki batean ekartzen dituen gorabeherak azalduko ditu.

55. *Itsaso marraduna* (A. Fortiori, 2007)

Katerinaren gurasoak bananduta daude, baina honek ez du ulertzen zer den banatuta egotea. Liburu honek egoera hori hobeto ulertzeko egokia izango da. Izan ere, batzuetan beharrezkoa da banaturik egotea.

56. *Buztangabe* (Pamiela, 2012)

Udako oporretan, afrikar asko joaten dira euren auto eta furgonetetan Iparretik Hegora. Furgoneta horietako bat gasolindegian geratu denean depositua betetzeko, neskatila bat utzi dute ahazturik. Ordu batzuk beranduago, bere familia kezkatu izuliko da. Familia batasunaren adibide egokia izan liteke ipuin hau.

57. *Ane eta ahatetxoak* (A. Fortiori, 2005)

Patrizia eta Montse oso pozik bizi ziren elkarrekin eta Ane iritsi zenean, poztasun hori handitu egin zen. Anek, bi ama zituen eta bera adoptatua zen. Egoera hori azaltzeko, bere bi gurasoak ahatetxoez baliatuko dira.

58. *Oso familia normala* (Edex, 2005)

Familia baten eguneroko zereginak deskribatzen dira liburu honetan, denek parte hartzen dute etxeke zereginetan.

59. *Aita eta ama ez daude haserre* (Tarttalo, 2007)

Kamilek gurasoen eztabaida asko entzun ditu azkenaldian eta horietako asko bere erruagatik dela pentsatzen du. Kamilek bere gurasoak banandu egingo direla uste du. Amak azalduko dio batzuetan gurasoek eztabaidak izaten dituztela, baina horregatik ez direla bananduko eta txikitxo lasaiago geratuko da.

60. *Matxalen barnetegian* (Ibaizabal, 2008)

Matxalenen gurasoak Matxalen barnetegi batera eramán zuten. Hasiera batean izandako inpresioa ez zen batere positiboa izan berarentzat, ez zitzaion leku hura asko gustatzen. Horregatik, oso ondo portatzea erabaki zuen laster bere guraso eta bere katu Mitxinarekin bueltatzeko eta horrela gertatu zen.

61. *Ni ez naiz txerria* (Elkar, 2003)

Jonasek marrazki bat egin du. Bertan, loreak, petaloak, sutraiak ... agertzen dira, baita txerri hori bat ere. Orduan, lagunek txerria dela esaten diote eta Jonasek marrazkia beltzez estaltzen du. Lagunek berdin jarraitzen dute, txerria dela esanez. Honen ondoren, mutikoak labana hartu eta argizari beltza kentzen hasten da eta marrazkiari bere irudia gehituko dio, errege bat balitz bezala. Jonas, askoz hobeto sentituko da orain.

62. *Jon txapeldun* (Hiria, 2005)

Jonek ez du bere buruaz estimu handirik, denek izeka egiten baitiote. Egun batean lagunekin dagoela, Kaikumari (tximu handi bat) etorriko da eta lagunak beldur direnez, ihes egingo dute, Jon izan ezik. Jonek aurre egingo dio eta hortik aurrera, Jon txapeldun deituko diote.

63. *Jon eta Beñat* (Hiria, 2005)

Jon bakarrik sentitzen da, ez dauka lagunik, denek egiten diote izeka. Egun batean, Beñat handiarekin egiten du topo eta biak lurrera erortzen dira. Hortik aurrera eta egoera ezberdinak gertatu ondoren, Jonek lagun bat edukiko du.

64. *Tximeleta belarriak* (Kalandraka, 2011)

Jokabide krudelak haur txikiengan ere ematen dira. Ohikoa izaten da batzuetan haur batzuk beste batzuei barre egitea, baita errespetu faltak eurengan ematea ere. Horrelakoak eragin dezaketen sufrimenduaz hitz egiteko erabil daiteke liburu hau, irudimena eta umorea erabiltzen baitu gauza desatsegin horiei aurre egiteko.

65. *Hannoren herensugetxo* (S.M., 1988)

Hanno oso gizen dago eta beste hurrek barre egiten diote. Hain gizen sentitzen denez, ikasketekin arazoak izaten hasi da. Baina behin herensuge txiki bat ezagutuko

du, hegan egin ezin duelako eta buru bakarra duelako kexatzen dena. Elkarrekin konplexuak gainditzen ikasiko dute eta gauzak ez direla diruditen bezain zailak ikasiko dute.

66. *Hiru txerriren txerrikeriak* (Ttartalo, 2005)

Luis berria da eskolan, otso bat da txerrien munduan. Txerri guztiak dira bere beldur eta honelako komentarioak egiten dituzte: "Beldur pixka bat ematen du, gaiztoa dirudi, ziur usan txarra duela ...". Luis bakarrik dago eta triste sentitzen da. Mitoekin hausten duen liburua da hau, bazterkeria eta gehiegikeriei aurre egiteko adiskidetasunaren indarra azpimarratzen duelarik.

67. *Ostiraleko opila* (Elkarlanean, 1998)

Simon udaletxeko pisu batean bizi da eta eskolatik bueltan, autobusetik jaisten denean, ez dauka inor bere zain askaria emateko. Gelan ere, berria denez ez dauka lagunik eta bakardadean bizi da. Leirek bere laguntasuna erakutsiz amak egindako opila emango dio ostiralero eta oso lagun minak egingo dira.

68. *Hurbil* (Kalandraka, 2008)

Ahate jauna eta untxi jauna lanera joaterakoan eta baita etxera bueltatzerakoan elkar topo egiten dute. Baina, desberdinak direnez ez dira elkar agurtzen eta egia esan, pena bat da, lagun minak izan litezke eta.

69. *Rino lotsatia* (Timun Mas, 1992)

Rino oso lotsatia zen eta ez zen oso maiz kalera irteten denak geratzen baitziren berari begira. Denek egiten zioten barre. Orduan, Rinok bere autoestimua igotzeko bere itxura aldatzera eraman zuen, bere buruarekin gusturago sentitzeko.

70. *Ahatetxo itsusia* (Gero-Mensajero, 2004)

Ahate emeak sei ahate txiki izan zituen, denak ziren hori-horiak bat izan ezik. Honako hau ahate beltza zen. Denek egiten zioten barre, mokokadak emateaz gain. Egoeraz nazkatuta, ihes egitea erabaki zuen eta bidaiia luze baten ondoren, berriro itzuli zen. Baina oraingoan besteak bezalakoxea zen eta lagunak egingo zituen.

71. *Bota ura!* (Edebé-Giltza, 1997)

Giro ona egiten duenean mutiko hau bere terrazan esertzen da eta irakurtzen aritzen da, baita irudimenez betetako istorioak egiten, marrazki eta guzti. Istorio ezberdin horiek azalduko dizkigu ipuin honetan.

72. *Afrika eta koloreak* (Ttartalo, 2003)

Afrika oihanean bizi da, elefante familia bateko txikiena da eta azken aldian oso triste dago. Egoera aldatzeko, txoritxo batek globo bat egiteko ideia luzatzen dio, globo horrekin bidaia bat egin ahal izateko eta txoriaren ideia jarraitzea erabakitzen du elefanteak. Joan baino lehen, txoriak 5 pote ezberdin ematen dizkio, munduan gehien gustatu zaizkion gauzak bertan sartzeko. Pote horietan munduan ikusten dituen kolore ezberdinak sartzen ditu Afrika kolorez margotzeko.

73. *Zaldi urdin bat margotu zuen artista* (Kalandraka, 2012)

Oso testu sinpleetatik abiatu eskala kromatiko oso erakusten digu liburu honek. Gainera, animalia batzuk erakusten ditu, ezohiko itxuraz eta ezohiko koloreak erabiliz.

74. *Elmer* (Erein, 2012)

Elmer ez da gainontzeko elefanteen modukoa. Bera, kolore anitzez osatutako elefantea da: berdea, urdina, txuria, arrosa, horia ... Hasiera batean ezberdina izatea ez du gogoko, baina azkenean bere itxura onartzen ikasiko du.

75. *Katuntxia* (Ibaizabal, 2013)

Liburu honen hegalek konbinazio aukera ezberdinak ematen dituzte, bi animaliekin hirugarren bat sortzen baita. Kasu honetan, katua eta untxia batuz, katuntxia eratuz.

76. *Urdin txiki eta hori txiki* (Pamiela, 2013)

Koloreen bitartez adiskidetasuna azpimarratzen duen ipuina da honako hau.

77. *Liburu bat* (Ttartalo, 2012)

Liburuaren lehengo orrialdeetan biribil hori bat azaltzen da orrialde txuri batean. Haurrak hatzarekin ukitu eta zer gertatzen den ikusteko, orrialdea pasatzeko gonbita jasoko du. Hurrengo orrialdeetan koloreetako biribil gehiago azalduko dira, lekuz aldatuko dira, lerroan jarri, handitu, liburutik ateratzeko zorian ere egongo dira momentu batzuetan. Laburbiltzeko, jolasteko liburua da.

78. *Jonen lanbideak* (Kalandraka, 2002)

Jonek lanbide ezberdinetan lan egiten duela imajinatzen du. Era honetan, lanbide ezberdinak ikasteko eta aldi berean, irudimena garatzeko ipuin egokia da honako hau.

79. *Kintxo zikintxo* (Kalandraka, 2002)

Kintxori asko gustatzen zitzaion marraztea, era guztietako marrazkiak egiten zituen. Egun batean, bere marrazkietako bati zikin beltz bat agertu zitzaion eta ez zekien zer zen, herriko jende eta animalia ezberdinei galdezka joan zen erantzun bat bilatu zuen arte.

80. *Patxiku* (Kalandraka, 2001)

Patxiku saguari ilargia gazta goxoz egina zegoela esan ziotelako joan zen ilargira. Ilargiari hozka egin zionean konturatu zen ez zegoela gaztaz egina eta orduan, tristetu egin zen. Baina ilargia pozik zegoenez, kantuan hasi zen eta sagua dantzan. Saguak lo hartu zuenean, ilargiak besarkatu egin zuen.

81. *Gabon hontza* (Pamiela, 2013)

Hontzak lo egin nahi du, baina animalia ezberdinak gerturatzen zaizkio zarata eginez, honen ondorioz ezin du lorik hartu. Animalia guzti hauek lokartzen direnean, hontza izango da lorik egiten utziko ez diena.

82. *Tatsu Nagataren piztia handiak* (Ttartalo, 2013)

Tatsu Nagataren piztiak oso handiak dira: balea, krokodiloa, gorila, hartza, otsoa, lehoia eta marrazoa. Bakoitza nolakoa den, non bizi den eta zer egiten duten azalduko digu.

83. *Lokatzetan* (Ibaizabal, 2003)

Txio eta Mu oso ezberdinak dira. Txio txori txiki urdina da, Mu behi handi bat. Hala ere, lagunak dira eta denbora elkarrekin pasatzea gustuko dute.

84. *Kattalin eta animalien liburu handia* (Ibaizabal, 2013)

Animaliak oso garrantzitsuak dira Katalinentzat. Denak gustatzen zaizkio: etxeke animaliak, baserrikoak, jostalariak eta basatiak. Hainbat daude eta denak hain desberdinak! Animalien munduan barneratzeko liburua da honako hau.

85. *Sararen basoa* (Ibaizabal, 2002)

Sara basoan bizi da eta oso pozik gainera. Bertan animalia ezberdinekin egiten du topo, bakoitzak arazo bat dauka eta Sarak arazo horri konponbidea emango dio. Animalia ezberdinak ezagutzeko aukera ezin hobea eskaintzen digu liburu honek.

86. *Animalien kumeak* (Ttarttalo, 2013)

Liburu honen bitartez, habitat ezberdinetan bizi diren animaliak ezagutzeko aukera izango duzu. Baserriko abereak, mendikoak, itsasokoak, basokoak, ibaikoak eta oihanean bizi direnak, hain zuzen ere.

87. *Ikusi-makusi baserrian* (Ttarttalo, 2009)

Baserrian aurki daitezkeen animalia ezberdinekin jolasten du liburu honek. Animalia ezberdinak ikasteko egokia izan daiteke.

88. *Animalien abenturak* (Ttarttalo, 1994)

Ahate familia urtero bueltatzen da aintzirara, baina aurten aintzira lata eta zaborrez beteta dago. Ahatea amak bere familiarekin bizitzeko toki garbi bat bilatu nahi

du, horregatik animalia ezberdinei eskatzen die laguntza. Animalia batzuk ez diote lagunduko, beste batzuk bai, ordea. Toki garbi hori aurkitu ondoren, poztasuna itzuliko da ahatearen familiara.

89. *Tito eta Kito basoan* (Ttartalo, 2002)

Asteburuan Tito eta Kito ibilaldi bat ematera joango dira basora. Bertan animalia askorekin egingo dute topo eta beraiekin jolastuko dute, argazkiak aterako dizkiete ...

90. *Mikela oihanean* (Ibaizabal, 2001)

Mikelak zelaian maleta bat ikuste du, barnen zer dagoen begiratzen ari den bitartean norbaitek maleta hartu eta Mikela barnean dela eramaten du. Esnatzen denean, maletatik irten eta oihanean dagoela konturatzen da, bertan animalia ezberdinekin esperientzia desberdinak biziko ditu. Esperientzia horien bitartez ikasiko du oihana ez dela beretzako moduko tokia eta berriro ere maletan sartuko da, etxera itzultzeko.

91. *Augustoren botila* (Giltza, 2013)

Augustok botila bat erosi zuen ez egarritzeko. Ondoren, botila garraiatzeko tresna eta ibilgailu ezberdinak erosi zituen (motxila bat, bizikleta, autoa, kamioia eta hegazkina). Baina, konturatu zen botilarekin aski nahikoa zela pozik egoteko. Botila tronpeta moduan erabiltzen baitzuen eta gainera, egarria kentzeko balio zuen. Liburu honekin ikas daiteke gauzarik sinpleenarekin pozik egoteko arrazoia daukagula.

92. *Bihotz-bihotzetik* (Ibaizabal, 2012)

Katuak arraina asko maite du eta horrela adierazten dio egunero. Baina, arrainak asko maite duela esan beharrean beti erantzuten dio, pixka bat maite duela. Askotan galdetu ondoren, arrainak asko maite duela eta beti maiteko duela erantzuten dio.

93. *Altxor bat aurkituko dugu* (Kalandraka, 2013)

Bizitzan gauzak ez dira izaten pentsatzen dugun bezala; askotan, justu alderantziz. Liburu honetako pertsonaiek, hartzak eta tigreak horixe ikasiko dute istorioan zehar. Izan ere, bistan da, egiazko altxorak ez daudela beti dirutan, ezta materialetan, egiazko balioetan baizik.

94. *Untxitxo txuria* (Kalandraka, 2000)

Untxitxo txuria baratzera joan zen azen bila salda bat egiteko, itzuli zenerako akerra sartu zen etxera eta ez zion untxitxoari sartzen usten. Untxitxoak animalia ezberdinei eskatu zien laguntza bere etxea berreskuratzeko, baina gehienek ez zioten lagundu nahi, akerraren beldur baitziren. Inurriak, ordea, txikiena izanda laguntzea erabaki zuen eta untxitxoaren etxea berreskuratu zuen.

95. *Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan* (Kókinos, 2007)

Erbi handiak eta erbi txikiak batak besteari zenbat maite dion azaltzeko ekintza ezberdinak egingo dituzte (besoak zabaldu, zutitu, salto egin ...). Elkarrenganako maitasuna adierazten duen ipuina da hau.

96. *Animalia guztiak ez dira urdinak* (Ttartalo, 2008)

Gizakien artean animalien munduan bezala ezberdintasunak daude. Liburu honetan, animalien arteko ezberdintasun txikiak nabarmentzen dira, baina, aldi berean, berdinak izaten jarraitzen dute, hau da, berdintasunean oinarritutako liburua da.

97. *Lagunen eskua* (Edex, 2005)

Lagunak euren artean desberdinak dira; bata lodia, bestea argala, beste bat sentimentala, harroputza ... Denak dira desberdinak eskuko behatzak bezalaxe baina aldi berean elkartuak daude, lagunak dira.

98. *Urdaburutarrak* (Kalandraka, 2006)

Urdaburu jauna bere bi semeekin eta bere emaztearekin bizi zen etxe polit batean. Amak egin behar zituen etxeko lan guztiak. Egun batean, egoeraz nazkaturik etxetik joan zen. Hortik aurrera, euren etxea txerritoki bilakatu zen, dena baitzegoen zikin eta ama itzultzea desiratzen zuten. Ama itzuli zenean, denak poz-pozik zeuden eta denen artean egiten zituzten etxeko lanak.

99. *Beti aurrera!* (Ttartalo, 2002)

Koala txikiak jolas askotan hartzen du parte, baina ez badu irabazten goibeldu egiten da. Liburu honetako orrialdeetan zehar koalaren amak gauza garrantzitsu bat erakutsiko dio: zerbait ikasi nahi baldin badu, behin eta berriro saiatu behar dela.

100. *Indarra elkartasunean dago* (Ibaizabal, 2008)

Gaur garrantzi handiko lasterketa dago, baina ez dute indartsuenek irabaziko (hartzek), argienek eta elkartasunean aritzen direnek baizik, saguek, alegia.